



Santa Ana jaiak Ordizian



Argazkiak: G. Arrugaeta

Oporretako imajina hoberenak!



3+1

ERREBELATU BAT DOHAIN!

FOTOETNE



FUJIFILM

ERREBELATU
SEMI-MANUALA

GURE BETIKOA

ZUZENKETAK
ARGAZKIZ-ARGAZKI



Sanitarioen instalazioa

Iturriak

Bainuko altzariak

Berogailu eta Gasa

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu denoi!*

GOIHERRI, S. L.

Iturgintza

Urdaneta 24 ☎ 943 88 11 57 ORDIZIA



SEGURAN

LAISTER FAMILIABAKARREKO 12 ETXEBIZITZA

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko lekua



ERAIKITAKO AZALERA

Beheko solairua:	87,36 m ²
Lehenengo solairua:	62,34 m ²
GUZTIRA:	149,70 m²

INFORMAZIOA eta SALMENTA:
943 49 38 73

ERAGILEA:

ARIN ERAIKUNTZAK, S.L.

Mamuteko bulegoak, 5. solairua, 6 bulegoa
OIARTZUN

ARKITEKTOA:

aS&Le
arquitectos asociados

Non zer

6-7 IRITZIA: Martin Mendizabal

8 AHOLKUA: Ile kizkurtua

9 KATE MOTZEAN: Jesus Mari Lariz

10-11: Ordiziako jaiak

12: Zezenketa Ordizian

13: Euskal musika

14-15: Pello Ramirez

16-27 KRONIKAK

ORDIZIA 17: San Fermin

zozketa. **BEASAIN 18:** elkartasunezko oporrak.

IDIAZABAL 19: Bielorrusiara bueltan. **ZALDIBIA 20:** Zaldibiar txapeldunak.

ORMAIZTEGI 20:

Lehenengo jaunartzea.

LAZKAO 23: Euskal ikastaroak. **ATAUN 24:**

Txapeldunak. **ZERAIN 25:**

Andra Mari jaiak. **GABIRIA**

26: Jaiak. **LEGORRETA 27:**

Ikasleak sariturik.

OLABERRIA 27: Bonsai erakusketa

28-29: KIROLA: Oiangu pilota eskola.

30-31: DEBALDEKO IRAGARKIAK

32: AGENDA

33: ZAHARRAK BERRI: Ordiziako Botika zarra

34 FOTO ZAHARRA: Ordiziako zezenzaleak.



Alkohol kontsumoaren prebentzioa helburu:

'Dolly's Jaiak 2000' Ordizian

14 urtetik gorako gazteentzat, Ordiziako jaien barruan, uztailearen 25ean, 'Dolly's Jaiak 2000' jaia izango da, pilotalekuaren inguruan. Gaueko 11,30etan hasiko da jaia. Gazteentzat aktibitate erakargarriak eskainiz, alkoholaren kontsumoaren prebentziorako edukiak transmititzea da jai honen helburua.

Hiru ekitaldi ezberdinetan oinarritzen da 'Dolly' jaia. Lehenengo futbolin bizidunean jokatzeko aukera izango da, 'Alkoholari sar iezaiozu gol bat' lemapean. 120 m²ko futbolina izango eta 8 lagunekoa taldeak osatu beharko dira. Talde bakoitzak Dollyren kamiseta ezberdina jantziko du eta aurpegiko kareta bana ere bai, 'Ni ez naiz Dolly' jartzen duena.

'Honaino iritsi gara' lemapean 'Super gum' atala egongo da. Plataforma puzgarri bat puztuko da. Pareta koltxoneta izango da, bi goma elastikoe-

kin. Lau puntatan launa pertsona lotuko dira arnesen bidez. Bik alde batera tira egingo dute eta besteek beste alde- ra. Koltxoneta bakoitzean marka bat egongo da, eta hortik ezingo da pasatu.

Azkenik, Drac-Queen animatzailearen txanda izango da. Autobusetik ariko da eta 'Don't worry, Miss Dolly' lehiaketa aurkeztu eta dinamizatuko du. Gazteak, Drac-Queenari lekua kentzen saiatu beharko dira proba ezberdinen bidez.

Goizeko 1,30etarako festa amaituko dela iragartzen da. Jai honetan, alkoholaren ondorio kaltegarriak adierazi nahi dira. Goierriko Drogomenpekotasunaren prebentziorako sailak, droga ezberdinek sor ditzatekeen arriskuak gutxitzeko aholkuak ere emango ditu, foileto bidez.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio**
Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitu Imaz. **Zenbaki honetako**
kronista eta kolaboratzaileak: Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Mari Flor
Mendizabal, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Laida Oiarbide, Inko Mujika,
Aitziber Murua, Mari Jose Alustiza eta Martin Mendizabal.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria



Juanito Rubioren aurkako atentatu saiakera

Lehergailua jarritako autoan Izaro alaba zihoan

Juanito Rubio sukaldariaren autoari bonba jarri zioten uztailaren 7an. Goizeko 7,30etan lehertzeko zegoen programatua baina tenporizadoreak huts egin eta ez zen lehertu. Autoan Izaro alaba zihoan.

Goizeko 11,15ak aldera, pertsona batek, autoaren azpialdean zintzilik zerbait zegoela ikusita, gidariari abisua eman zion. Izarok autoa gelditu eta lehergailua lurrera erori zen. Ertzaintzak zonaldea itxi eta lehergailua indargabetu bitartean, Guda-rien etorbideaz gain, Bustuntza eta Urdaneta auzoetako zenbait etxebizitza hustu zituen.

Ertzaintzak emandako datuen arabera, kilo eta erdi dinamitaz osatua zegoen lehergailua. ETari leporatzen diote atentatua.

Juanito Rubio Cambrilsen zegoen oporretan eta berria jakin bezain laster itzuli zen Ordiziara.

Juanito Rubio, Beasaingo Rubioren jatetxearen jabea da. Ordiziako Oiangu jate-txea eta Olaberriko Zezilionea bere esku daude.

Udalaren gaitzespen agiria

Atentatua gertatu eta hurrengo egunean, uztailaren 8an, Ordiziako Udaleko bozeramaleen batzordea bildu zen. EAJ, EA, PSE-EE eta EB-IUko zinegotziek bultzatutako agiria onartu zen, "horrelako jarduerak ez dute lekurik, ezta justifikaziorik" zela esanaz, eta ETari desageritzeko eskatuz. EHk, beste



Ordiziako Plaza Nagusian atentatua salatzeako bilkura.

agiri bat kaleratu zuen, atentatu saioa deitoratu eta konponbidearen aldeko jarrerak eskatuz. EAJ eta EArekin gobernu taldea osatzen du EHk eta Alejandra Iturrioz alkatea eztei bidaian denez, EHrekin ituna hautsi edo ez, alkatea etorritakoan erabakiko da.

Konzentrazio ixila

Gaitzespen agiria onartzearekin batera, Ordiziako EAJ, EA, PSE eta EB-IU alderdiek ordu laurdeneko bilkura ixila deitu zuten uztailaren 9ko eguerdirako. Mila bat lagun bildu ziren Plaza Nagusian. Ordiziarrez gain, Roman Sudupe Ahaldun Nagusia, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramalea, Jabier Madrazo eta Antton Karrera EB-IUko buruak, EAko Rafa Larreina eta Jon Goikoetxea, Juan Mari Juaristi EAJko Gipuzkoako lehendakaria eta Iñaki Pierrugues sozialista izan ziren bilkura ixilean.

Ondoko koadroan, jaso ditugun hainbat gaitzespen adierazpen bildu ditugu.

Gaitzespenak

Ordiziako Jakintza ikastola

Uztailaren 7ko atentatu saiakera gaitzetsi zuten Ordiziako Jakintza ikastolako langileek. Rosa Lasa, Juanito Rubioren emaztea, ikastolaren sortzaileetako bat izan da. "Atentatu bortitz hau gaitzesten dugu eta familia osoari gure laguntza eskaintzen diogu", dio ikastolaren agiriak.

Jakintza ikastolak dioenez, "herri honek jasaten duen indarkeriak amorrua sortarazten digu. Elkarbizitza eta giza eskubi-deak onartzen dituen gizarte baten aldeko aldarrikapena ere egin nahi genuke".

Goitur

Goierriko 18 udal eta 40 ostalaritza enpresa biltzen dituen Ekimen Turistikoen Zentruko administrazio kontseiluak, Goiturrek, gaitzetsi egin du Rubiotarren aurkako atentatua, eta familiari elkartasuna adierazi dio. "Txantaia terrorista" arbuiatzearekin batera, "honelako ekintzek gure ekonomia eta gure elkarbizitza suntsitzeko baino ez dute balio", dio. Rubiok Goierriko eskualdearen alde egindakoa goraipatzen du Goiturrek: "Goierriren aldeko jardunean azken urratsa aurtan egin dute Goiturren beraren bultzatzaile eta parte-hartzaile izanik, eta bertako Administrazio Kontseiluko kide bederen".

Topagune eta Elkarriketarako Goierriko ekimena

Juanito Rubioren familiari elkartasuna adierazi nahi dio publikoki Topagune eta Elkarriketarako Goierriko ekimenak, "beste goierritar askoren sentimentua gure eginez". Politikagintzan edozein eratako indarkeriaren aurka dagoela gaineratzen du ekimenak. "Horregatik ETari berriro ere, bere ekintzak berehala bertan behera uztea eskatzen diogu, eta euskal gizartearen borondatea errespetatu dezala, bakea baita gehiengoak nahi duena eta etorkizuna ere bide baketsuetatik eraiki nahi baitu".

Goierritar guztiei dei zabala egiten die Goierriko ekimenak, "horrelako ekintzen aurrean, edozein delarik ere bere jatorria, beldurra eta gorrotoa gainditu eta publikoki elkarriketa eta bakeratzeko ekimenak sustatu eta indartu ditzaitez". Azkenik, Goierriko erakunde politiko, sindikal eta sozial guztiei ondokoa eskatzen die: "elkarriketa eta akordio sozialean oinarritutako bakegintzaren aldeko konpromezu argi eta serioa, gure herriak eskubide osoz nahi duen norkuntza ahalbideratu dadin".



Mikel Zumarraga berriz ere kartzelara

Uztailaren 5ean, Ormaiztegin atxilotu eta berriz ere kartzelan sartu zuten Mikel Zumarraga ormaiztegiarra. Iazko ekainean irten zen 12 urte kartzelan pasatu ondoren, zigorraren hiru laurdenak beteta. Iruñeko Espetxe Zaintzako Epaitegiak eman zuen agindu hori. Fiskalak errekurtoa jarri eta onartu, egin dutenez, berriz ere kartzelan sartu dute, zigorra osoz bete dezan. Martutenen dago Mikel Zumarraga.

Egoera hau salatzeko, Ormaiztegin mobilizazio ugari egin dituzte. Amnistiaren Aldeko Batzordeen esanetan "erabaki politikoa" da Zumarragarena.

Mikel Korta aske

Otsailaren hasieratik kartzelan zegoen HBko ordiziarra libre gelditu zen uztailaren 13an, 5 milioko fidantza ordainduta. Baltasar Garzon epaileak ETako nazioarteko kide izatea leporatu zion Mikel Kortari. Libre gelditu bezain laster, gogor salatu zuen ordiziarrak, "gure aurkakoa bezalako azpijoko juridiko, politiko eta polizialekin ez dute eragotziko ezker abertzalearen lana". Uztailaren 24an egingo diote ongi etorria Ordizian, arratsaldeko 8ak aldean.

Oporrak!

GOIERRITARRA aldizkariak udako oporrak hartuko ditu. Abuztuaren 21ean itzuliko gara berriz ere lanera, irailaren 5eko alea prestatzeko. Ondo pasatu oporrak!



Euskadiko arku-tiro txapelketa

Beasaingo Antzizar Arku-tiroketa taldea nagusi izan da Beasainen jokaturako Euskadiko txapelketan. Senior absolutuan, Aritz Zumeta izan da garaile eta Ander Telleria 3.. Zumetak lehenengo urtea du seniorretan. Infantil mailan Xiker Lazkano izan da irabazlea eta Ander Gonzalez 2.a. Alebinitan Julen Ruiz izan da txapeldun. Nobeletan edo lehenengo urtekoen mailan, Josu Galludo 4. izan da.

Uztailaren 15 eta 16an jokatu zen txapelketa Loinazko futbol-zelaian. Larunbatean eguraldi ximel samarra egin bazuen ere, igandean lagun izan zuten eguraldia. 100 parte hartzaile izan ziren. Eta azpiegitura eta antolaketa aldetik gustura gelditu ziren arkulariak.

Antzizar taldeko 4 arkulari datozen egunetan, Espainiako txapelketak jokatzen dira. Irailean izango dugu emaitzen berri.

Ordiziako azoka astelehenean

Ordiziako jaiak direla eta, asteazkeneko azoka, astelehenean egingo da datorren astean. Hau da, uztailaren 24an. Iraileko azoka berezia 6an izango da.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Martin
Mendizabal

Buztuntza ala Bozuntza?

berriz, Goierrin eta Gipuzkoan ezagutu den batzar-leku zaharrena da eta zalantzarik luketenentzat hona bere zahartasunaren adierazpen batzuk.

"Bozue" zeritzaien Gipuzkoako "Aralar eta Enirio"k osatzen zuten larre-mendiari eta hango larre-eskubidea zeukan elkarteari.

Jatorrizko izenak "Ar-an-lar-e" eta "Boz-ur-e" dirudite. Ar-an-lar-ek "mugaren aurraldekoen larrea" esan nahi du eta Boz-ur-ek "behekoen ur-mugaz bereizia". Eta egia esan, Aralarko partaideak goi-larreen aurraldeetan dauzen herriak dira: Nafarroa aldetik 14 herri eta Gipuzkoa aldetik 15, tarteko mugariak Balerdi tontorretik Putzerri tontorrera dituztela.

Gipuzkoarrak "Bozue haundi"ko edo "Bozue txipi"ko partaide ziren. Bozue haundia Aiza-Gaztelutik Balerdi arteko mugaz behera zeuden biztanleek osatzen zuten: Amezketak, Ikaztegieta, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketak (badirudi Altxo eta Alegi ere 1400 arte partaide zirela). Bozue txi-



Buztuntza edo Bozuntza baserriaren gaur egungo egoera.

pia, berriaz, Aiza-Gaztelutik Agauntza-erreka arteko mugaz behera bizi zirenek: Zaldibia, Gaintza, Alzaga, Arama, Legorreta, Itxasondo, Ordizia, Beasain, Lazkao eta Ataun.

Bozue haundiko batzarren biltokia Abaltzisketako "Biltadina" (Pildain) zen. Baina Bozue txipikoak deitzen zituztenean, "Suegi"ko atarian. Suegi zaharra bi Bozue mugan zegoen eta bost bideen korapiloan. Abaltzisketako baserria zen, baina Zaldibi eta Gaintzako mugariaren azpian. Suak kiskali

zuen 1929an eta oraindik egongo dira bere arrastoak Gaintzatik Larraitza egin den auto-bidearen ertzean. Bi Bozueko partaideek Suegi zergatik aukeratu zuten garbi dago.

"Bozuntza", berriaz, Bozue txipikoek aukeratutako biltokia zen. Bere izenak "bozue-kona bakarrik" esan nahi du eta ezaugarritzat harri-marras inguratu zuten eta barruan intxaur-landara aldatu. Ordiziako babeskuntzari "Villa franca" izena eman zitzaionetik (1268an) 500 urtetara ere (1779 arte) intxaur

Ordiziak badu baserri bat 800 urte inguruan batzarrak bere atariko intxaurpean izan zituen. **"Bozuntza"** zuen jatorrizko izena eta **"Bozunza"** idazten dute beti iskribuek eta **"Bozunza"** idatzi zuen Karmelo Etxegaraiak **"Ordiziako Monografia Historikoa"**n (1908).

Baina ordiziarrek, izena zuten ikasten baino hitza aldrebesten gehiago saiatu direlako, 1.000garren urte ingurutik 1779ra arte **"Bozuntza"** izan zena **"Buztuntza"** bihurtu digute, inork arrastorik eta esan nahirik aterako ez dion deitura inozoa. **"Bozuntza"**,

ORDIZIAN eta BEASAINEN

- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak



S.A.

Filipineta, 13 - behea ☎ 943 88 49 50 ORDIZIA

MUGAR

Argiztapenak



Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

horren aurrean izan ziren "Bozue"koen batzarrak.

Lekua hautatzearen zergatia ulertzen erraza da: Bozue txipiko bazter guztietatik erditsu zegoelako eta lau bide-tara egoki: Alkarteko zubitik Altzagarate eta Gaintzara, Zaldibitik Aralarra, Lazka-omenditik Enirio eta Atauna, Tximistako zubitik Ordizia eta beste tokietara.

Elkartearen jatorria Ordizia sortu aurrekoa da. "Ozkue" izenez eta bailara bezala azaltzen da, lehen aldiz, ge-rora beti "Bozue" idazten den lurraldea. Bere datak 1027 urtea darama, baina adituek 1180 aldera idatzitako gutun gezurtizat daukate. Hala ere, nahiz eta gezurra zabaltzeko asmakizuna izan, izen hori, bere lurraldea ezaguna zela-ko, aukeratu zuten eta 1027 urterako bazela zekitelako.

Garai haietan ez zen Gipuz-koan herririk (lehen Donos-tia da, 1180.ekoa). Orduan



Etxe berriak, trenbide eta errepede artean ezkutuan dago baserri zaharra.

"Bozuntza" Bozue txipikoek aukeratutako biltokia zen. Bere izenak "bozuekona bakarrik" esan nahi du eta ezaugarritzat harri-marraz inguratu zuten eta barruan intxaur-landara aldatu. 1779 arte intxaur horren aurrean izan ziren "Bozue"koen batzarrak.

"Agirre" k ziren auzoen ezaugarriak eta bailarak euren barruti nagusiak. Ordiziako San Bartolome eliza ere bi

"Agirre" tako etxeek eraiki zuten (1215-1237): Mari-barratza kalean ezagutu genuen "Agirre txipi"ko etxeek eta

Upabi eta tunelaren arteko "Agirre haundi"koek, Lazkaibar eta Txintxurreta izan ezik, Beasaingo eliztar izatea nahiago izan zutelako, eta berdin Senpere ere, Lazka-oko San Migel aukeratu zue-lako. Ordiziako herria, bada, Agirre txipiko lurralde osoz eta Agirre haundiko lurralde gehienez sortu zuten.

"Bozuntza" baserri ohia hutsik eta bertan behera utzia dago. Nahiz eta hain zaharra ez izan, gutxi iraungo du zutik. Ordizia eta Bozue txipi-ko udalei asko kostako al litzaieke, euren arbasoek due-la 1000 urte aukeratutako batzar-leku honetan oroigarri bat eraikitzea eta idazkian 9 herrien izenak ezartzea?

Eta Bozueko 15 herriei asko kostako al litzaieke "Suegi" zahar izan zen lekuan beste oroigarri bat eraikitzea? Gipuzkoan aipamena duten bi batzar-tegi zaharren hauek ez ote dute horrenbeste merezi?



GOIERRI Ikerketaren Zentrua
Gidatzeko eta armen baimenak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Jai zoriotsuak denoi!

2000-7-25 eta 26an
itxita jaiengatik

2000-8-1etik 28ra itxita oporregatik

Garagartza Plaza 10

943 888734

ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:

Aita Urdaneta ORDIZIA

943 88 72 76



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK

Suquia

ERAKUSKETA:

943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA

Ile kizkurtua



**Mari Jose
Alustiza**
JOS&BEL
orraztegia
Ordizia

kontraste gehiago lor daitezke, hau da, lixo eta ondulatuaren nahasketa, biak kolore ezberdinez konbinatuta.

Kasu gehiagotarako ere erabiltzen ditugu teknika hauek, ilea mehea edo fina denean, adibidez, puntu edo zona ezberdinetan bolumen gehiago lortzeko, neurri luze eta ertainetan nahi den rizo edo ondulazioa egiteko...

Lan mota hauek egiteko produktu kimikoak erabiltzen ditugula kontutan hartuta, eta denbora luzerako egiten ditugunez (2 edo 3

hilabete), ezinbestekoa da tratatu egokia ematea bai garbitzerakoan, bai forma ematerakoan ere. Hidratazio eta nutrizioak, maskarillak, puntetarako erreparadore edo Serumak, Peeling edo exfolianteak buru-azalerako (deskamazio edo zolda dagoenean bakarrik) beharrezkoak dira.

Kizkurak forma eta egitura egokian iraun dezan lagungarriak ditugu, era berean, jelak, gominak eta abar. Uda garaia denez, produktu hauek eguzkia-rengandik babesteko presatutakoak badira, hobe.



Uda honetan, eta aurrera begira ere bai, ile kizkurtuak eta ondulatuak protagonismo handia hartzen ari dira. Aspaldian gehiegi ikusi ez baditugu ere orain arrakasta handiarekin datoz.

Tresna ezberdinak erabiltzen ditugu forma hauek lortzeko -tenazak, bukreak, bigudiak...-, bukaera eta efektu ugari emanez. Forma iraunkorragoa lortu nahi bada, berriz, permanente edo moldeatuaz baliatu beharko dugu. Teknika hauen bidez joku eta

Lehiaketa

Galdera

**Zenbat urte bete ditu
Goierriko bertso-
eskolak?**

Erantzuna abuztuaren 24rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

**Saria Pier Berzaitzen
CDa eta
GOIERRITARRA-ren
kamiseta.**

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Xabier Mendiguren.

**Irabazlea:
Xabier Dorronsoro
(Beasain)**

**Iues
rothers**
BEASAIN

LORAZA
Martxoaren
1etik aurrera
berriro ere

ZABALIK
Amaiares eskutik

Lili
Ezteiak, zentroak,
elizkizunetarako koroak,
lore lehorrak, balkoiak...

Zaldizurreta 3 behe, Beasain © 943 888149

IBAI ONDO

AROZTEGIA
instalazio berriak

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266
N-1 errepidea, 419 Km

Faxa: 943 888 105

BEASAIN

Euskara txukunean

On egin / egunon

On egin / On egin deizuela // Egunon / Egunon deizuela. Zein da zuzena? Zuzenak guztiak zuzenak, halere, ikus ditzagun forma guztiak banan-banan:

On egin eta Egunon

On egin eta Egunon zuzenak eta egokiak dira euskara batuan eta baita gure euskalkian ere.

On egin deizuela eta Egunon deizuela

On egin deizuela edo On deizuela eta Egunon deizuela, berriz, gure euskalkian horrela dira, zuzenak eta egokiak dira, beraz, herri hizkeran, lagunartean, familian eta abarretan ibiltzeko; euskara batuan, berriz, On egin deizazuela edo On degizuela eta Egunon diezazuela.

Beraz, laburtuz:

Euskalkian: On egin / on egin diezuela / on deizuela

Euskara batuan: On egin / on egin diezazuela / on degizuela

Euskalkian: Egunon / egunon diezuela

Euskara batuan: Egunon / egunon diezazuela

Maizpide Euskaltegia



**OINETAKOAK
OSAGARRIAK**

J. M. Barandiaran Pl., 3
© 943 88 61 77 **ORDIZIA**

Santa Ana ala Euskal jaiak?

Biak, oso ezberdinak dira gainera.

Zein ekitaldik ematen dizu burukominik handiena?

Euskal jaietako asteazkenak.

Eta gehien gozatzen duzuna?

Matutina.

Zein saio gustatuko litzaizuke Ordiziara ekartzea?

Ordiziako adin eta ideologia ezberdinetako pertsona guztiak bilduko dituen saio bat.

Zein da Ordiziako egunik onena?

Asko. Herriko jaietan danborrada, Matutina, koadrilen eguna. Euskal jaietako asteazkena, Gabonak ahaztu gabe.

Zer egin behar da Ordiziako azoka gaztetzeko?

Eusko Jaurlaritza eta Diputazioa inplikatu daitezela eta baserritarrak finantzatu ditzatela, lantokietara joan ez daitezen. Baita ere, dirulaguntza handiak eman bertako produktuak mantendu daitezen eta belaunaldi aldaketa egin dadin.

Zein musika mota gustatzen zaizu?

Klasikoa, mexikarrak, balsak eta boleroak.

Zure zaletasunak:

Kirola, plantxa eta sukaldaritza.

Txikitan zer izan nahi zenuen?


Kirolari on bat, futbolista.

Bizitzako egunik txarrena? Eta onena?

Anai bat galdu nuena. Onena? Nire 3 semeen jaiotza.

Desio bat:

Behin betikoz guztiok nahi dugun bakea lortzea.



Jesus Mari Lariz

Ordiziako festen gestorea

X A X O

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

San Inazio, 5 © 943 88 35 81
BEASAIN

**SEGURA
IRRATIA**

F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

X i kel

NEVES
BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 © 943 16 16 06
ORDIZIA

Ordiziako jaiak

Uztailak 21, ostirala:

20:00etan: Jubilatuen Egoitzan, Lasarte-Oriako 'Biyakbat' taldearen kantaldia.

22:15etan: Herri Antzokian antzerkia, Ordiziako "Urrup" taldearen Aristofanesen "Batzarra Emakumeena" lana.

Uztailak 22, larunbata: Txikien koadrila eguna

10:00etan hasita: Kiroldegi-ko igerilekuan, goizez eta arratsalde, Gipuzkoako Udako Txapelketa Absolutua.

11:00etan: Kiroldegian, 'I. Aerobiton Ordizia', Majori Kiroldegia eta Goierriko Kirolo Teknikoak antolatuta.

12:00etan: Suziri eta bonben jaurtiketa. Ordu berean udaletxean aginpidea emango zaie haurren Alkate jaun-andreei. Plaza Nagusian Txikien Koadrila biltzea.

Ondoren: Buruhandi eta Erraldioen alardea, txistuz, trikitiaz eta Txikien Kuadrilaz lagundurik.

16:00etan: XXVII. Txapel Gorri Txirindulari Proba, 2.urteko kadeteen mailan.

16:15ean: Joxe Migel Barandiaran Plazan, haur jolasak.

17:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, gomazko pilotaz pa-



la-partiduak finalak.

17:30ean: Gudarien Etorbidetan, Txirindulari Lasterketaren amaiera.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldoiak, Ordiziako Txistulariekin batera. Udaletxetik Txikien Koadrilak irtengo dira 'Kalejira' txarangarekin.

19:00etan: Plaza nagusian, haur animazioa pottokak, bigantxak...

20:00etan: Beti Argi bandarekin Txikien Koadrilen kalejira.

22:30ean: Arboledan Zezen-Suzkoa, Beti Argi bandak alaitua.

23:00etan: Beti Alai Pilotalekuan haurren moztorro dantzaldia, 14 urtez beheko haur

eta horien gurasoentzako antolatua, Beti Argi bandarekin.

Uztailak 23, igandea:

9:00etan: Goizeresia Ordiziako Txistulariekin.

10:00etan: Majori Kiroldegi-ko igerilekuan, goizez eta arratsalde, Gipuzkoako Udako Txapelketa Absolutua.

10:45ean: Haurren alkate jaun-andreei harrera egingo zaie udaletxean.

11:00etan: Meza Santua. Meza bukatzean Danborrero eta Upeltxo taldeek, Beti Argi bandaren laguntzaz, Ordiziako Martxa joko dute.

12:00etan: Plaza nagusian, haurren ohiko aurrekua.

12:30ean: Barrenan XVI. Ortzadar Argazki Lehiaketaren sari-banaketa.

16:30ean: Beti Alai Pilotalekuan Ordizia IV Torneoaren pilota finalak alebin eta infantil mailan.

16:45ean: Herri Antzokian pelikula eskainiko da dohai-nik neska-mutikoentzat.

19:30ean: Kantinerak Udaletxetik Bustuntza aldera abiatuko dira, Beti Argi Bandak lagundurik. Han hasiko da haurren danborrada.

20:00etan: Haurren danborrada; bukaera Plaza Nagusian izango da azken erretreta jo ondoren. Segidan kalejira.

Uztailak 24, astelehena:

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhandi eta Erraldioen alardea, txistuz, eta trikitiaz lagundurik.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldioen irteera Ordiziako Txistulariekin batera.

21:30ean: Ohiko Danborradaren irteera. Danborradari bukaera emateko Gurrutxaga maixuaren Ordiziako Martxa joko da Plaza Nagusian.

Ondoren: 'Koxkola' txaranga, alde zaharrean.

23:30ean: Boxeo Jaialdia.

00:00etan: Alde Zaharrean

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 04 47

Urdaneta, 29 ORDIZIA



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA

OIANGU

TABERNA



☎ 943 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

Amama Luisa & Dixilangileak Brass Band taldearen musika-saioa.

Uztailak 25, asteartea:

7:30ean: Laguntasuna Rondailaren goizeresia.

8:00etan: Barrena Parkean, LXXVII. Villafranca Txirrindulari probaren parte hartzaileen aurkezpena.

9:00etan: Profesionalentzako Nazioarteko LXXVII. Villafranca Txirrindulari-Proba hasiko da.

13:30ean: Plaza nagusian, Laguntasuna Errondailaren kontzertua.

13:30ean: LXXVII. Villafranca Txirrindu Probaren amaiera.

18:30ean: Larruzko pilotaz pala-partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

18:30ean: Alde zaharrea eta Urdaneta kalean Erraldoien kontzentrazioa, honako konpartsekin: Beasain, Tolosa, Legazpia, Urretxu, Zegama eta Ordizia.

19:00etan: 'Koxkola' txaranga ibiliko da kalez kale.

19:30ean: Alde zaharrea, Kale-antzerkia. "Paquetito" lana Trapu Zaharra taldearen eskutik.

21:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

22:30ean: Domingo Unanue



Plazan, dantza folklorikoaren jaialdia, Jugoslaviako 'IMT' taldearen eskutik.

23:30etik goizaldera arte: Plaza Nagusian, dantzaldia Titanes Show orkestarekin eta Koxkola txarangarekin.

23:30etik aurrera: Beti-Alai pilotalekuaren parean: 'Dolly's Jaiak 2000'.

00:00etatik 3:30 arte: Beti Alai pilotalekuan mozorro-dantzaldia Alaitz eta Maider taldearekin.

Uztailak 26, asteazkena: Santa Ana eguna

6:00etan: Ohiko goizaldeko danborrada.

Ondoren: Arboledan, txokolatejana.

8:30ean: Ordiziako Txistulariek eta Trikitixak alaituriko goizeresia, herriko hainbat

tokitan hasita.

9:00etan: Irungo Udal Musika Bandaren kalejira.

11:00etan: Parrokian Meza Nagusia Udalbatzarra bertan dela Santa Ana abesbatzarekin.

12:15ean: Plaza Nagusian, agintarien soka-dantza.

13:00etan: Plaza Nagusian, Irungo Udal Musika-Bandaren kontzertua, Juan Jose Iturrioz Niño maisuaren zuzendaritzaapean.

18:00etan: Beti Alai pilotalekuan profesionalen arteko pilota partiduak eskuz.

18:30ean: Plaza Nagusian, haur-ikuskizuna, 'Hankapalo' taldeak "Petrikillo" lana antzeztuko du.

19:00etan hasita: 'Kalejira' txaranga.

21:00etan: Kalejira Beti Argi bandarekin.

22:30ean: Domingo Unanue Plazan, akrobaziaren ekitaldi ikusgarria, 'Txina Demokratikoko Hebeiko akrobata-konpainia' taldearen eskutik.

23:30etik 3:30 arte: Plaza Nagusian, Iruña Band eta Kalejira txarangak alaituriko dantzaldia.

23:30etatik 4:00ak arte: Dantzaldia Arkaitz taldearekin Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, osteguna: Santanazale eta koadrilen eguna

9:00etan: Ordiziako Txistularien eta trikitixen goizeresia, herriko hainbat tokitan hasita.

11:00etan: Parrokian Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohiko Esku-Dantza Plaza Nagusian. Esku-Dantza hau 1509tik ospatzen da.

13:00etan: Koadrileen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argi Bandarekin.

23:30etik 3:30 arte: Plaza Nagusian, Pagina 6 Orkestarekin eta Kalejira txarangarekin, ezkonduen eguneko dantzaldia.

23:30etik 4:00ak arte: Dantzaldia Suan Blai taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

Arantxa
Lentzeria
Jai Zoriontsuak!
J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

Arrandegia
Goen
☎ 943 888 633
Kale Nagusia, 6
ORDIZIA

Poltsikokoa: ☎ 616 435 204

Jai zoriontsuak denoi!
ITZIAR
☎ 948 467 406
Zumalakarregi, 2
ALTSASU


INPRIMATEGIA
URDANETA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA


Jai zoriontsuak denoi!
Opilak
Kafeak
Freskagarriak
☎ 943 88 90 98
Domingo Unanue, 5 **ORDIZIA**

Uztailaren 25ean zezenketa Ordizian

Uztailaren 25ean arratsaldeko 6etan Altamirako futbol zelai anexoan ezarriko den 2.000 eserlekuko zezen plazan zezenketa ospatuko da. 5 txekor toreatuko dituzte Igor Etxaniz 'Kinttela' Azpeitiar Burtzikari gazteak, Victor Mendes portugaldarrak, Juan Antoni Esplak, Hernanin jaiotako Sergio Sanchezek eta Jose R. Martin nafarrak.

Garai batean Ordiziko plaza estali gabe zegoenean bertan egiten ziren zezenketak, ondoren 'Abenida' ingurura pasa ziren eta ondoren Aranako futbol zelai zaharrean. Azken zezenketa 1973. urtean izan zen. Ondoren soka muturra egiten jarraitu zen baina Jaurilaritzatik etorri ziren arau berriak zirela eta hau egiteari ere utzi egin zitzaion.

Aurten zezenketa 'El Albero' zezen lagunarteari esker izango da. "Zezenak gus-tuko ditugun lau ero gara.



Karteleko marrazkia Arantxa Agirrek egindakoa da.

Jendea zezenketara, zezenaren biziko azken unea ikustera joaten da. Guk urte t'erdia daramagu hitzaldi, erakusketa etabarren bidez zezenaren bizitzako 4 urte horiek nolakoak diren zabaltzen. Hau dena egin ondoren gure asmoa zezenketa antolatzea zen eta martxan dago", dio-te.

Gipuzkoan zaletasun handia dago. Lehen Tolosara, Azpeitiara eta inguruko zezen plazetan Ordiziako jendea bakoitza bere aldetik joaten zirela ikusten zuten. Horrela hasi ziren elkartzen eta

'El Albero' lagunartea sortu zuten. "Gipuzkoan 12 lagunarte daude, eta gu gara urtean zehar hainbeste ekitaldi antolatzen dituzten bakarrak. Hilero bat antolatzen baitugu".

Valdefresnoren txekorrak

Salamankako Valdefresno ganaduzale garrantzitsua-ren txekorrak izango dira. Donostian otsailean izaten zen nobilleroen topaketak aprobetxatuz 'El Albero'-ren urteurrena ospatzeko mahai ingurura etorri zen ganaduzale hau. Orduan Salamankara bere ganadutegia ikustera joateko gonbidapena jaso zuten ordiziarrek. Asteburu batean bertan izan ziren eta harreman hori dela eta erabaki dute Valdefresno-ko txekorrak ekartzea.

Gurutze Gorriaren alde

Gurutze Gorriaren aldeko zezenketa da eta beraiek ere kamioi kirofanoa ekarriko dute. Zezenketa onegintzako edo benefikoa izatean toreatzaileek askoz diru gutxiago kobratzen dute eta merkeago ateratzen da. Traje

motza jutzen dute eta ez toreatzaile jantzia. Pikatzailerik ere ez da izaten. Lau toreatzaileak banderileroak izan dira eta beraiek jarriko dituzte banderilak, eta hori oso ikusgarria izaten omen da. Soberako ekarriko den 6. zezena hala beharrez ateratzen ez bada, eta ordaintzeko modua ikusiz gero opari bezala aterako da eta 4 toreatzaileen artean toreatzeko.

Sarrerak 'El Albero'-ren elkargune den Olano tabernan daude salgai 3.000 pezetan. 600632799 telefonora deituta ere lortu daitezke.

Paseilloa

Paseilloa ere egingo dute Prazuelatik zezen plazaraino: aguaziltxoak zaldi gainean, txaranga, karroza moduko bat etabarrekina. Ondoren plazan aureskua dantzatuko zaie toreatzaileei.

Aurkako jarrerak

Aurkako jendea izango zela bazekiten honetan hasterako, "baina zaletasun handia daukagunez aurrera jarraitu dugu. Espero ez genuena udalaren laguntzarik ez izatean zen", dio te zezenzaleek.

KOIOTE KOIOTE

Jai zoriontsuak

Zaldizurreta Kalea
BERSAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Lirain

Pub

KIRKIL

PUB

ORDIZIA

Jai zoriontsuak denoi!



GOIAGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindakoa ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 943 880737

'Topa ta dantza... euskaraz'

Euskal musika eta kantuak tabernetan

Ordiziako jai hauen tabernetan euskal musika gehiago entzun dadin ahalegin berezia egindo du Ordiziako Udalak, Euskararen Aholku Batzordearen bitartez. Merkataritzan euskara sustatzeko plangintzaren barruko ekimena da.

Udalak tabernariei euskal musika eta kantuak dituzten eta puri-purian dau-den musika eta kantuz osatutako katalogoa eskaini die. Honela, eskaintza-ko disko bakoitza, %25eko deskontuarekin erosteko aukera dute tabernariak. Baga-Biga Kultur-gaiak dendak prestatzen du katalogoa. Urtean bi katalogo prestatzen ditu, festei begira eta Gabon inguruan.


Baga-Bigakakoek adierazi digutenez, "gero eta

erantzun hobea ari da izaten ekimen hau eta gero eta euskal musika gehiago erosten da. Jartzen duten ala ez, hori beste kontu bat da". Ohitzen ari omen dira tabernariak eta katalogoaren zain egoten dira.

Aurten arrakastarik handiena izan duten taldeak hauek dira: Betagarri, Oskorri, Etzakit, Joxe Ripiau, Uga eta Euskal Herriko musika bilduma.

Eskaintza honen bitartez, euskal musika eta kantuez gozatzeko aukera eman nahi zaie tabernariei, herritarrei eta gune horietako bezero diren guztiei.

Tabernetako bezeroei ere dei berezia egin die Udalak: gustuko dituzten euskal doinuak eta kantuak jartzeko eska dezaten. Topa ta dantza... euskaraz!



Txosnetako egitaraua

Uztailak 22, larunbata:

19:00etatik 21:00etara, Herri mugimenduen erakusketa.

21:30ean: Gaztetxean afari herrikoia.

Ondoren: karaokea.

Uztailak 23, igandea:

7:00etan: zezenketen aurkako manifestazioa.

23:00etan: Herriko taldeen kontzertua, Arboledan.

Uztailak 24, astelehena: preso eta errefuxiatuen eguna:

14:30ean: Arboledan bazkari herrikoia.

19:30ean: enkartelada ixila.

Ondoren: ekitaldi politikoa. Mikel Kortari omenaldia egingo zaio.

Uztailak 25, asteartea:

18:00etan: 'I. zalaparta batzar jirabiratsua'.

Uztailak 26, asteazkena:

23:00etan: Kasbahd eta herriko taldeen kontzertua, Arboledan.

Uztailak 27, osteguna:

23:00etan: Trikitzio.

PUB

Festa onak pasa!

sugaar

A s t o k a l e
O R D I Z I A

HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

Pub **Zorionak !!** *Pub*

Amonane

Amonane

Ordizia

ETXETXO TABERNA

Pintxo bereziak!

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela opa dizuegu!

943 88 28 83

Plaza Nagusia **ORDIZIA**

Pello Ramirez musikari ordiziarra:

"Musika egitea, musikaz gozatzea, sentitzea da nire ametsa"

Musika munduan akordeoiarekin hasi bazen ere, txeloarekin ari da buru-belarri azkenaldian Pello Ramirez ordiziar musikaria. Pianoa eta gitarra ere "saltseatzen" ditu. Musika talde ezberdinetan jotzen du, dena den, ez du ukatzen denborarekin, bere konposizioen lanen bat kaleratzea. 34 urte ditu.



Pello Ramirez ordiziarra.

19 urte zituela hasi zen txeloa ikasten. "Musika klasikoa beti gustatu izan zait eta telebistan kontzerturen bat ikusi, Rostropovitch txelista handi bat ikusi eta txundituta gelditu nintzen. Ordiziarako musika eskolan txeloa ikasteko aukera jarri zuten eta horrela hasi nintzen. Kateatu egin nintzen", esan digu Pello Ramirezek. Kontserbatorioko ikasketak

amaituta dauzka, baina oraindik ba omen dauka zer ikasia. "Oso zaila da eta asko ikasi behar da. Piska bat utziz gero... oso exigentea da".

Txeloa ikasten hasi zenean orkestra handiren batean jotzea zuen helburua eta asmoa. Euskadiko Orkestran saio txiki bat egiteko aukera eduki zuen, baina ordiziarra

ez zen gustura gelditu. Geroago, talde ezberdinetan jotzen hasteko aukera izan zuen eta gusturago dago ordiziarra.

Kolaborazio lan ugari egin izan du eta egiten ditu musikariak. Benito Lertxundirekin, Lucas Ponces portugaldarrarekin, Josetxo Goia nafarrarekin duen saxofoi-txelo taldean... "Taldea batek

ez du hainbesteko lanik egiten, orduan denetik egin behar da. Bere alde ona badauka, beti gauza berdina jotzen aritu beharrean, musika estilo jo eta giro ezberdinak eza gutzen baitira".

Musikarientzat lana ba omen dago. "Mundu horretan sartu behar da eta hasiera batean kostatu egin da. Nik, orkestra bateko aukera egin izan banu, seguruasko, ez nintzatekeen horrela ibiliko. Baina behin aukera egin da, libreago, eta patroiz fijoetatik aterata, jendea ezagutu egiten da eta kontaktuak egiten dira".

Egunen batean bere taldea osatzea bururatu ote zaion galdetu diogu. "Pentsatu dut, bai. Oso konbentziturua egon behar da horretarako. Badauzkat grabazio batzuek eta nire kasa ere lantzen ditut nire lanak. Egunen batean, zerbait borobila ikusten dudanean, aterako nuke zerbait. Dena den, horretarako



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

☎ 943 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

TXALAPARTA
taberna

Festa onak para!

Goierri Kalea, 12 943 88 67 65
ORDIZIA

MIAMI
kafetegia

Etkezaretaka
ORDIZIA



FESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

Etkezaretaka Kalea
ORDIZIA

denbora behar da, buru-bel-
larri horretan sartu. Piska-
naka ari naiz. Abesti hauek
egunen batean grabatuko di-
tudala pentsatzen dut", ai-
tortu digu.

Denean sentitzen da gus-
tura, talde bakoitzak "rollo"
ezberdina dauka. "Eszenato-
kian gustura egoten naiz.
Bakarka jotzea ere asko gus-
tatzen zait baina jende au-
rrean jotzea beste gauza bat
da. Jendearekin lortzen den
harremana, oso polita da".
Leku txikixeagoak nahiago
ditu, jendea gertuago senti-
tzeko baita.

Ordiziako Musika eskola-
ko irakaslea ere bada Pello
Ramirez. Ziurtasun ekono-
mikoa ematen badio ere, ge-
ro eta gusturago sentitzen da
lan honetan. "Nahiko gazte
hasi nintzen, eta geroz eta
gehiago gustatzen zait jende-
arekin izaten den harreman
hori. Eszenatokietan ibiltzea
polita da, baina askotan go-
gor samarra ere bai, hotza
ere bai. Beti jendearekin zau-
de baina batetik bestera.
Klaseetan harreman gehiago
izaten da jendearekin", esan
digu.

Arlo ezberdinetan entzun
izan ohi dugun kexa entzun
dugu ordiziarraren ahotik,


Mingainari tiraka

- Zein musika mota en-
tzuten duzu?

- Gehienbat musika
klasikoa. Errenazi-
mentuko musika ere
asko gustatzen zait.
Jazza ere bai... kotxe-
an noala kantariak en-
tzutea asko gustatzen
zait.

- Musika jo duzun leku
xelebreren bat:

- Hiru lagun elkartu
ginen arratsalde bat
pasatuz eta azkenean,
gauean, Pasai San
Juanen bukatu ge-
nuen. Hango portuan,
gauean, txeloa hantxe
jo nuen. Goia saxofoleare-
kin ermitetan eman genituen
kontzertuak. Eunaten jo ge-
nuen eta oso gauza berezia
izan zen. Argirik ez dago eta
hango akustikarekin, oso-
oso polita izan zen. Horrela-
ko lekuek xarma handiagoa
daukate.



- Musikari bezala zein amets
duzu?

- Musika egitea, musikaz
gozatzea, sentitzea. Jendeari
transmititzea.

- Inoiz gelditu al zara piezaren
bat bukatu eta jendeak txalo
egin gabe?

- Ez. Baina askotan pentsatu

izan dut zerbait inten-
tsitate handiarekin jo
izango banu, jendea
ixilik gelditu beharko
litzatekeela. Txaloek
askotan, moztu egiten
dute musika. Jendea
ixilik geldituko balitz,
hunkituta, polita izan-
go litzateke.

- Eguneroko entsaiatzen al
duzu?

- Ia eguneroko jotzen dut
zerbait. Baina beste
lan batzuk badaude,
ez da instrumentua jo-
tzen bakarrik.

- Herri mailan musika gi-
rorik ba al dago?

- Giro epel samarra
dago. Kontzertuetara
ere ez da jende asko
hurbiltzen.

- Festetan zer moduzko musika
jartzen da?

- Ez naiz oso festa zalea.
Musika gehiegi dago, beti
musika jarrita dago. Zerbait
lasai entzuteko lekurik ez
dago.

gero eta gaztetxo gutxiagok
ikasten duela musika. "Jen-
dea hasten da, baina serio-
serio, pasio handiarekin
agian ez. Aukera asko ere

badaukate gaur egungo hau-
rrek eta musika ikasteak
nahikoa sakrifizio eskatzen
du. Edozein instrumentu
eguneroko jo behar izatea,

nahikoa gogorra da. Guraso
aldetik ere laguntza asko be-
har dute. Haurrak motibatu
egin behar dira, kontzertue-
tara eraman eta abar".



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 943 16 02 48
ORDIZIA



JAIK ONDO
PASA

ETHEZARRAETA, 3
ORDIZIA



Arteaga, 1
ORDIZIA

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15

☎ 943 88 82 52

ORDIZIA




- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak

Zutikako solariuma

4 eta 8 minutuko sesioak

(7 eta 10 sesiotako bonoak)



✓ Keramika erakusketa eta salmenta.

✓ Bainuak, kanilak eta osagarriak.

✓ Bainugelarako altzari ugari.

✓ Sauna-kabinak eta hidromasaia-bainuak.

✓ Tximiniak, ikatz eta egur sukaldeak.

✓ Iturgintza, gasa eta berogailuak.

✓ Igeltseritza orokorrean.



Jai zoriontsuak denoi!

AUSO EGI
ITURGINTZA

Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA



San Fermin zozketak errekorra

San Jose Zahar Egoitzakoak pozarren egoteko moduan dira, izan ere euren alde dirua ateratzeko orain urte asko sortutako San Fermin zozketak errekor berria lortu du. Iaz 59.000 izan baziren saldu ziren zenbakiak, aurten kopuru hori gainditu eta 60.000 saldu dira. Dakizuen ez orain urte batzuk Txindoki Tabernak hartu zuen zozketa aurrera eramateko ardura. Aurretik Urdaneta Kaleko Eguzki Tabernaren esku egon zen, baina hau uztean Jesus Mari Altuna Txindoki Tabernako jabeak hartu zuen ardura.

Bildutako diru guztiaren %10a San Josekoei emango zaie (300.000 pta. inguru), gainontzekoa sari moduan banatuko da eta zozketak sortzen dituen gästuetarako ere erabiliko da zerbait. Sari-tuak izan diren zenbakien zerrenda Txindoki Tabernan bertan ipinita dago eta gogoratu 150.000 pta.ko saria zain dagoela kopuru txikiagoko beste zenbaiten artean.

Bonba eraso

Jaso diren informazio guztien arabera Juanito Rubio ostalaritzako enpresari ordi-ziarraren aurkako atentatu saioa izan zen uztailaren 7an Ordizian. Informazio gehiagorako 4. orrian.

Mikel Korta etxean

Bost milioiko bermea ordaindu ondoren aske utzi zuten joaneko uztailaren 12an Mikel Korta ordiziarra. Informazio gehiagorako 5. orrian.

Aitor Calvillo

Futbol denboraldiko balantzea

Ekainaren erdialdean, egun seinatu batean, Ordizia Kirol Elkartek eman zion bukaera 1999-2000ko futbol denboraldiari, belaunaldi desberdinetako jokalariek elkartuz eta garai bateko beterano zaharrenei "garai bateko jokalariek ospetsuak", omenaldi beroa eskainiz (datozen urteetan hain beteranoak ez direnei hori bera egiteko asmoz). Herrietan eta herrialde osoan kirol eta gizartearen kultur jardueretan lanean ari diren hainbat lagun hurbildu ziren ekitaldira (Udal, Foru Aldundiko Kirol Sail, Gipuzkoako Federazio, Realeko arduradunak e.a.), eta 1999-2000ko denboraldian nabarmendu diren jokalarien artean garaikurrak banatu zituzten.

Denboraldia laburbilduz, zoriontsuak behar dugu izan OKE-k lortu duen emaitzarenatik, senior-taldeak igoera bikaina lortu eta Erregionaleko 1. kategorian jokatu baitu.

Zuzendaritza Batzordearen ustez, balio handiko lorpena izan da lehia ofizialetan zazpi talde izatea kategoriatan desberdinetan, besteak beste, emakumezkoen kategorian jardun duen talde berriaren lana, polita benetan bigarren denboraldian batez ere. Halaber, azpimarratu beharra dago ohorezko ligako gazte taldeak eta 1. kategoriako kadete taldeak erakutsitako maila, euren kategoriari

eustea lortu duten arren, lortu dutena baino gehiago merezi zutelako, kadete-taldeak bati bat. Talde honek kategoriaz igotzeko liga zein Gipuzkoako kopa irabazi ez izana, fase bakoitzeko azken partiduan galdutako aukerengatik suertatu baitzen.

Joan den iraila inguruan uste genuen bezala, ohorezko ligako haurren taldeak ahaleginak egin arren ezin izan dio eutsi bere kategoriari, taldea osatu duten mutilak lehen-dabiziko urtekoak izan direlako gehienak. Hala ere, talde polita lortu dute teknikariek, hobetuz joan dena eta etorkizunera begira itxaropen osoa jarri dute talde horretan.

2. gazteen taldea oso ondo hasi zen eta liga ona egin ondoren, kategoriaz igotzeko fasean jokatu zuen arren, ez du igotzea lortu bigarren denboraldian gertaturiko hainbat gorabehera direla medio, hala nola jokalariek batzuen bajak, futbola bertan behera utzi beharra,.... eta jokalariek gutxiko plantila-taldea izan dela beti.

2. kadeteak eutsi dio kategoriari, alderdi guztietan bere jokabidea hobetuz kanpainan zehar. Horregatik guztia eragatik, Zuzendaritza Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie taldeetako kideei, teknikariei eta Elkarteko bazkide eta laguntzaileei.



Pregoi lehiaketa

Kultur Etxeko batzordeak San Bartolome jaiei buruzko pregoi idatziaren bigarren lehiaketa antolatu du. San Bartolome bezperan udal-tertxeko balkoitik irakurtzeko pregoia egitea da asmoa. Gutxienez 2 minutu eta gehienez 5 minutuko izan beharko du. Gaia, San Bartolome jaiak 2000 izango da.

Prosa edo hitz lauz, olerki

moduan edo bertsotan aurkeztu daiteke lana. Saria 15.000 pezetakoa izango da.

Epaimahaiak zegamarra izatea baloratuko du. Gutxienezko mailarik ez badago sariaketa desertuan utz daiteke. Irabazleak/ek jendaurrean aurkeztu beharko du/te, norberak edo bere ordezkariak.

Uztailaren 26 baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

Testu idatzia kartazal itxi batean aurkeztu behar da, barnean ezizen bat sartuz. Beste kartazal baten barnean, egile edo egileen izen-abizenak eta telefonoa sartu behar dira, azalean ezizena jarritz.

Balkoi eta leihoetako 1. Lore apainketa lehiaketa

Herriguneko ikuspegi osoaren txukunketan etxetik egin

genezakeenaren garrantzia ikusirik, udalak etxeetako 1. Balkoi eta leihoetako lore apainketaren lehiaketa antolatu du.

Barietatea, konposizioa eta etxearen kokapena hartuko dira kontuan. Baloratuko den epea, uztailaren erdialdetik abuztuaren 23ra bitartekoa izango da.

15.000 pezeta eta garaikurra jasoko ditu irabazleak. San Bartolome eguerdian egingo da sari-banaketa.

Eduñe Albizu

Beasaindar gazteak garapen bidean dauden herrietan lanean

5 beasaindar gazte, abuztuan eta irailean, Nikaragua eta El Salvadorera joango dira, Beasaingo Udalak herriko gazteei hirugarren mundura joateko ematen dizkieten bekei esker. Bertan, lankidetzaz jardueretan parte har dezaten lagunduko da beka bidez. Elkartasun balorea indartu eta aldi berean gure herriari lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutaraztea da helburua.

Maria Eugenia Argiñano eta **Silvia Gomez** Chinandegara joango dira Mugen Gaietarako Gobernu Kanpoko Erakundearekin. Emakumezkoen alfabetizazioaz arduratuko dira. Somotora **Iñigo Castro** joango da Honen Erakundearekin. Umeen zentro prebentiboan arituko da lanean, irakasleei laguntzen, umeei eskolako lanetan laguntzen eta beste batzuek

alfabetizatzen. Aisialdia bertan ere lagunduko die.

Maria Eugenia eta **Iñigo** errepikatu egingo dute iazko esperientzia, leku ber-berean izango baitira proiektu berdinekin. **Leire Contreras** eta **Mari Mar Outeiriño** erizainak berriz, Oxsi Gobernu Kanpoko Erakundearekin El Salvadorera joango dira. Leku ezberdinetan ibiliko dira bertako beharrak aztertzen.

Bestalde, badira beste bi gazte Donostiako Elizbarrutiko Elkartasun Plataformarekin jada Chiapas eta Eritrean izango direnak. **Eneritz Eskisabel** Chiapasen da, osasuna, hezkuntza, jantzigintza eta nekazaritza alorreko prestakuntza proiektuan parte hartzen. **Gorka Eskalante** Eritrean dago, adreilu eta zementuzko eskola bat eraikitzen laguntzen.



Beasaingo Futbol Taldearen aurkezpena

Uztailaren 17an, astelehenean egin zen 2.B mailako Beasaingo Futbol taldearen aurkezpena. Entrenatzaile lanetan Gonzalo Arkonada izango da beste behin. Jokalariei dago kienean berriz, aurpegi berri asko ikusi ziren. Hona, zeintzuk osatuko duten aurtengo denboraldia: Imanol Gonzalez, Jon Ander Elgarresta (Urolatik dator) eta Martin Marcos atezainak (Tolosatik). Atzelari lanetan arituko dira: Iker Nuñez, Luis Garmendia, Javi Gonzalez, Iker Iraola, Joseba Romero (Tolosatik) eta Alain Gerekoetxea. Erdilari postuan jokatu dute berriz, Ion Usandizagak, Iakes Gibelaldek, Ekain Avilak (Ondarruko Aurrera), Gaizka Iriartek, Oskar Sueskunek, Sergio Perezek (Antiguo), Eduardo Juradok (Trintxerpe) eta Unai Egubidek (Real B). Aurrelari lanetarako berriz, Jon Ander Hombro (Segura), Aritz Mujika (Antiguo) eta Iker Ramirez herritarra Real Unionetik. Egoitz Sukia eta Endika Mendizabalek osatuko dute beraiekin batera aurrelari postua.

Denboraldi berriko aurkezpena egin ondoren beraz entrenamendu lanari ekin beharko diote orain. Bazkide berrien kanpaina ere matxan du jada eta jendea animatu nahi dute bazkide kopurua handitu dadin. Aurten, igo egingo dute bazkideen kuota. 1.000 pezeta igoko da gazte eta jubilatuentzat, 10.000 pezeta ordaindu beharko dute beraz. Gainerakoek 18.000 pezeta ordaindu beharko dute, 2.000 pezetako igorarekin. Kontuan izan behar da, Beasaingo taldea dela 2. B mailan presupuesto baxuenarekin lan egiten duen taldea.

LABURREAN

Antzizar Kiroldesia irekita izango da abuztuan

Erabiltzaileek hala eskatuta, aurten lehen aldiz, ateak irekita izango ditu Antzizar Kiroldegiak. Orduetegi berezia izango du ordea. Lanegunetan, 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara. Jai egunetan ez da irekiko.

Ikastolako zozketa

Beasaingo Ikastolak egindako 15 eguneko egonaldiaren zozketan ondorengo zenakia izan da saritua: 4550

Balleteko klaseak

Datorren ikasturtean, urritik ekaina bitarte balleteko klaseak emango direla jakinerazi digute. Bost urtetik gorako neska-mutilei zuzendua dago. Beasaingo Etxe-Ubi gimnasioan emango da Gala irakasle dutela. Interesatuok telefono honetara dei dezakezue: 943 886088

Nekane Altuna

Bielorrusiara bueltan

Rouslan, Ekaterina, Elena, Ioulia, Tatiana, Irina eta Elena San Inazio egunean itzuliko dira Bielorrusiara. Brest eskualdeko Vicorovichi eta Struga herrietan bizi dira zazpi neska-mutiko hauek. Azkeneko hilabete eta erdia Idiazabal, Ormaiztegi eta Zegaman eman dute. Txernobilgo zentral nuklearrak 1986an izandako istripu larriak ekarri ditu neska-mutiko hauek Goierrira. Etxetik ateratzen ziren lehendabiziko aldia zuten guztiek. Hasierako egunak gogorrak izan ziren, etxerako ordua iritsi zaienean ordea, Bielorrusiara joateko gogo handirik gabe daude.

1986ko apirilean, artean, jaio gabe zeuden zazpi neska-mutiko hauek. Txernobilgo izandako istripuak, berez, ez zien zuzenean eragin. Zeharka ordea, haur hauek Txernobilgo beste guztiek bezalaxe, erradioaktibitateak eragindako arazoak dituzte. Beraien herrialdeko ura, lurra eta handik ateratako jakiak kutsatuta daude. Horrek, ezinbestean, gaixotasunak izateko erraztasun handiagoa esan nahi du. Erabateko erremediorik, oraingoz, ez dago. Egoera arintzeko modua ordea bai. Medikuek, eta haurren gurasoek ongi dakite, Bielorrusiatik kanpo hilabete egiten duten haurrek, urtean zehar arazo gu-



txiako izaten dutela.

Horren bila etorri da Goierrira talde hau. Idiazabalen estreinako egin den esperientzia da. Herriko bost familiek hartu dituzte beraien etxeetan, neska-mutiko hauek. Lehendabiziko egunak izan ziren gogorrenak, "neska-mutiko gehienak negarrez aritu ziren lehendabiziko egunetan, familia gogozan baitzuten. Etxetik ateratzen diren lehendabiziko aldian dute. Haur txikiak dira, hizkuntza ere ez dute ezagutzen. Hamar bat eguneko kontua izan da hala ere. Hortik aurrera guztia oso ondo joan da". Mariak, haurrekin etorri den monitoreak hala laburtu du egonaldia. Berarentzat kontu hauek ez dira berriak, aurretik beste bitan Agurainen izan baita.

Idiazabalgo familiek, Maria izan dute laguntzaile.

Edozein arazo sortuta ere, 24 orduz, poltsikoko telefonora deitu eta hala atera dira aurrera. Pixkanaka ezagutu dituzte haur hauen ohiturak. Aurretik ere bazekiten esate baterako, esnea hartzeko arazoak izaten dituztela. Bielorrusian, esnea ere kutsatuta dute, hori dela eta esnari erreparoa izaten diote. Itsa-soa ere erakutsi diete, aurretik ez baitzuten ezagutzen. Euskaraz ere zerbait ikasi dute.

Asteburuan egingo dute Agurainen despedida afaria. Arabako Lautadako Izaki Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du egonaldia. Bidaia, bertara etorri diren haurrekin batera egin zuten Goierrikoek, eta itzulera ere batera egingo dute. Araba aldera etorri diren neska-mutikoek, errepikatze aukera izan dute. Idiazabala etorri

Gazte eguna

Uztailaren 29an egingo da aurtengo gazte eguna. Goi-zetik hasi eta gauera bitarteko egitaraua antolatu du Gazte Asanbladak. Goizean, jokuak, eguerdian plazan bazkaria. Arratsalderako poteoa dago iragarrita eta gauean afaria, sorpresa eta guzti. Afarirako txartelak salgai daude Xume eta Odei tabernetan mila pezetaren truke.

Arizkorretak urtebete

Arizkorreta futbol zelaia inauguratu zela urtebete beteko da uztailaren 23an. Urtebetetzea ospatzeko, Idiazabal kirol Elkarteak, futbol zazpi erako txapelketa antolatu du.

direnekin zer gertatuko den ikuskizun dago. Haurrak hartu dituzten familiek denbora pasatuta balantzea egin beharko dute, bere baitan "nik ere hartuko nuke" pentsatu duten herritarrek ere badute pentsatzeko astia.

Legeak inolako eragozpenik jartzen ez badie, haur hauek, eta beste asko hurrengo urtean etortzeko prest izango dira. Txernobilgo bertako ama baten hitzek ematen diote zentzua honi guztiari: "Eskerrak eman nahi dizkiegu gure haurrak hartzen dituzten familiei, han pasatutako hilabete bakoi-tzak osasun gehiago esan nahi baitu. Nere semeak eta beste hainbat haur zuen arteko egonaldiak gogoratuz bizi da" (Natacha Liasovich).

Xabier Urteaga

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta



ALTZAGA

AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:

Lanegunetan: 943 16 21 92

Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

943 88 05 65 OLABERRIA

Zaldibitarrak txapeldun

Joan zen igandean Añorgan jokaturako pilota txapelketako finalean Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga zaldibitarrak irten ziren garaile. Lehia gogorrean jardun ondoren Mendizabal eta Gurrutxaga 22 eta 16 gailendu zitzaizkien Zabala eta Oteizari. Zorionak bioi!

Aralarrera mendi irteera

Gailurrerantz Mendi Elkar-teak txangoa prestatu du da-

torren larunbaterako. Goizeko 8etan herriko plazatik atera eta Aralarko zenbait gailur igo ondoren itzuliko dira mendizaleak Zaldibiara. Datorren ostegunera arte, hilak 27, salgai egongo dira tikeak Joxepanen, Illatin eta Beti Gazte Elkartean; langileek 1000 bana pezeta ordaindu beharko dute, eta ikasle eta langabeek 500.

Saroi Jauregi - Iñaki Gurrutxaga



Oiduiko berrikuntzak

Oiduiko saroian dagoen elkarte berritzeko premian dagoela eta, abuztuaren 12tik 27ra bitartean auzolanean konpontzeko deialdia egin du elkarte batzordeak. Herritar guztien artean lanak azkarrago eta giro hobean egingo direlakoan, herritar oro animatu nahi dute elkartetik auzolanean esku bat botatzera. Beraz, badakizue: aurtengo udan zesuma bazaudete eta txabola txukun ikusi nahi baduzue, animatu! Herriko tabernetan eman dezakezue izena uztailaren 31 baino lehen. Lanean hasi baino lehen, txandak antolatzeke, bilera batera deituko ditu batzordeak animatzen diren guztiak.

9 haurrek egin dute lehenengo jaunartzea



Lehenengo jaunartzea hartu zuten haurrak.

Aurtengoan 9 haurrek egin dute lehenengo jaunartzea. Pozik agertu ziren ospakizun garrantzitsuen aurrean eta egun alaia igaro zuten. Bataio eta sendotzarekin batera gure parrokiaren urtean zehar ospatzen den elizkizunik garrantzitsuen da lehenengo jaunartzeena. Aurtengoan lehenengo jaunartzea egiteko altarean izan ziren 9 haurrak Ane Albisu, Ane Simon, Nerea Apaolaza, Iñigo Gilabert, Jon Gomez, Iban Lage, Joseba Iztueta, Jon Mendizabal eta Josu Lerma izan ziren.

Giro oso ona Lierniko erromerian

Urtero bezala aurtengoa ere uztailaren bigarren igandean ospatu berria dugu Ormaiztegitarren erromeria Liernira. Eguraldiaren laguntza paregabeaz giro oso onean burutu zen aurtengo erromeria. Goizean goiz hasera eman zitzaion salda dastaketari. Meza Nagusiaren ondoren jarraitu zitzaion. Jarraian haurren jokoek alaitu zuten giroa herriko trikitilarien doinuaren laguntzaz. Goizeko ekitaldiaren ostean herri bazkaria izan zen, aurtengo-

an Arzak eta bere lagunek prestatutako marmitako bikaina banatu zen bertaraturikoen artean.

Arratsaldeko ekitaldiei hasera Gazteizko Panta Rhei antzerki taldearen saioak eman ziren. Haur eta helduek ikuskizunarekin gozatzeko aukera izan zutelarik. Antzerkiaren ondoren toka txapelketa herrikoia izan zen. Inoiz baino pardaidetza handiagoarekin, 60 partaidetik gora izan zirelarik. Aurtengo

toka txapelketako irabazlea Bittor Etxezarreta izan zen. Sari bezala Mujika jatetxeak ematen duen bi lagunentzako bazkarirako txartela jaso zuen.

Erromeriari amaiera ohi bezala herriko lagun taldeen arteko sokatira txapelketak eman zion. Txapelketa honetan hiru talde izan ziren partaide eta irabazleek udalak saritutako bi arkume jaso zituzten.

Aitziber Murua

AZKENEKO ETXEBIZITZAK SALGAI LAZKAON



- ✕ 3 LOGELA
- ✕ SUKALDEA
- ✕ EGONGELA
- ✕ 2 BAINUGELA
- ✕ TERRAZA 1 edo 2
- ✕ 17.900.000 pezetatik hasita
- ✕ TRASTELEKUAK eta
- ✕ GARAJEAK ere bai
- ✕ LAZKAO ERDI-ERDIAN

TIBURTZIOENEA, S.L.

Tel.: 943 16 24 72

2000ko UDAN BUKATZEKO PREST DAUDE, MUGI ZAITEZ!

uda honetan ezinbestekoa

Zure *MoviStar Activa*:

9.900

pta.tik hasita



7.000

arte deietan

pta.



Alta eta fakturarik gabe • 4 tarifa mota. Nahi duzunean aldatu (lehenengo aldaketa dohainik) • Nazioarteko Roaming-a

* Eskaintza hau 2000/7/17a arte izango da. Egun horren ondoren galdetu baldintzak, 4000 pta.ko hasierako saldoa + 2000 zure pack aktibatzean + 1000 Pack-en ageri den erantzun-txartela bidaliz gero.

MoviStar Plus

Hala agin baino askoz gertago

Alta eman ezazu MoviStar Plus-en edozein kontratutan: **MoviStar Plus Elección, Plus Próxima, Plus Planes (1500, 3500, 5500, 7500, 11500 eta Plus Profesional)** eta honakoa lortuko duzu:

*Eskaintza hau 2000/8/31a arte izango da

Konexio-kuota

DOHAINIK



6.000

pta.

opari deietan



Alcatel One Touch View Db

• **w@p** Nabigatzailea

Internet zure eskura

• Duala: estaldura handiagoa

• Saturazio gutxiago sarean



movitel2000

Mugikortasun Digitaleko Zentroak

Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89

Banatzaila Ofiziala: **Telefonica MoviStar**

zintzarria

munduko musiken Xareta 1go jaialdia

zugarramurdi. *uztailak 29, 30*

ANTOLATZAILEA:

10 Egunkaria
urte

*hijas del sol
luar na lubre
septeto santiaguero
oskorri
alaitz eta maider
erdi aroko azoka...*

larunbata
29

20:00 jabier muguruza
20:30 faltriqueira.GA
21:10 etzakit
22:20 hijas del sol.ginea
23:30 oskorri
00:40 luar na lubre.GA
01:50 xuia reggae band

igandea
30

20:00 maddi oihenart
20:30 pier paul berzaitz
21:10 john whelan.UK
22:20 septeto santiaguero.kuba
23:30 eric rigler&bad haggis.eeuu
00:40 alaitz eta maider

www.zintzarria.com

sarrerak jadanik salgai (2.500 pta)
CLUBES CANeko bezeroentzat sarrera: 2.200 pzta.

- urretxindorra (bilbo)
- bilintx - frudisk (donostia)
- arriaga (gasteiz)
- bertso hop (irun)
- xalbador - chaston (iruña)
- mattin (baiona)

InfoClub
901-500 500

**MEGA
PLAN**

CUENTA JOVEN
lider



Udako euskal ikastaroak

Udalak eta Maizpide Euskaltegiak uztailerako antolatutako XXVI. Udako Euskal Ikastaroak jarraipena izango dute abuztuan. Kasu honetan ordea, ekitaldiak ez dira plazan izango, Maizpiden baizik. Maizpide herritar guztientzat izango da zabalik euskara bultzatzeko helburuarekin. Beraz, bertara hurbiltzeko aukera izango du lazkaotar orok gaueko bederatzietatik aurrera. Hori baita, ekitaldi guztiak hasiko diren ordua.

Abuztuak 8, asteartea: Koldo Ameztoty ipuin kontalaria 'Lau haizetara' deritzoten ipuinei buruz arituko da Maizpideko zinema-aretoan.

Abuztuak 21, astelehen: Iñaki Murua bertsolariak solasaldi bihurtuko den hitzaldi bat aurkeztuko du. Hitzaldiaren izenburua: Bertsolaritza jorratuz.

Abuztuak 22, asteartea: Xabier Amuriza. Amurizak 'Lazkao Txiki bat-bateko sorgina' lemapean hitzaldia eskainiko du.

Abuztuak 24, osteguna: XXVI. Udako Euskal Ikastaroari Amaia eta Ruth trikitilariak emango die amaiera.

Ludoteka Mikelarren

Mikelarreko ludotekak bere ateak zabalik izango ditu irailaren batetik aurrera. Mikelarrek Udalarekin sinatutako akordioaren arabera, udalak gastuen zati garrantzitsu bat finantzatuko du. Hori dela eta, irailetik abendura ume bakoitzak ordaindu beharreko kuota 5.000 pezetekoa izango da.

Zerbitzu hau erabili nahi duten guztiak Ikastolako bulegoetara jo beharko dute izena ematera ahalik eta lasterren. Bestalde, iraileko lehen egunean Ikastolako areto nagusian bilera bat izango da herritarrei informazio gehiago helarazteko. Bilera hau arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

Euskararen erabilpena sustatuz

Sozio-ekonomi Ikerketa elkarteak, Siadecok, Lazkaoko Udalaren aginduz herriko bizitza sozialean euskararen erabilpena sustatzeko plana garatuko du.

Plan honek Lazkaoko egoera soziolinguistikoa aurkezten dituen ezaugarriak hartuko ditu abiapuntutzat. Bere helburua, errealitate soziolinguistikoko horretan pixkanaka-pixkanaka eragitea da eta bereziki herritarren



Auzolan konponketa

Lazkaoko baserri bideak konpontzeko Udalak bi proiektu iragarri bazituen ere, Goimen elkarteak lan horietarako dirurik ez zuela luzatuko adierazi zuen. Dena den, proiektu hauek gauzatu egingo dira.

Lazkomendiko eskola-etxetik Atutxe eta Abalin Zaharra baserrietara eta San Prudentzio ermita aurretik Izar Baso eta Izar Erdi baserrietara doazen bideak izango dira konponduko direnak. Horretarako, bi batzorde sortu dira; batetik, lanketa antolatu eta burutzeko eta bestetik, Udalari lanen garapen eta jarraipenaren berri emateko. Bide hauek konpontzeko prestaketa lanak auzolanean egingo dira, ondoren Udalak asfaltatuz.

ahozko harrremanetan euskararen erabilpena sustatzea.

Ekimenaren oharra

"Lazkaoko Ekimenak, presoen alde egiten ari den martxa dela eta eskerrak eman nahi dizkie martxa Lazkaotik pasatzean parte hartu zuten guztiei. Martxaren aldarrikapena ia euskal gizarte osoak bereganatua duen arren eta martxa honetan parte hartzea ere denon egin beharra dela iruditzen zaigun arren, alderdi eta edade guztietako jendea ikusi genuen Lazkaon joan zen uztailaren 2an giro ezin hobe eta atseginean denak batera euskal presoen eskubideen errespetua eta hauen Euskal Herri-ratzea aldarrikatuz eta hau

benetan txalogarria eta eskertzekoa iruditzen ziagu. Eskerrikasko beraz, atxikimendua emateaz gain martxan parte hartu zenuten guztioi: Dionisio Amundarain, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia, AEK, Xabier Narbarte, Antzar Gazteak txaranga, Talogileak, Oin Arin dantza taldea, Lazkaoko pelotariak, Domarda elkarte, Esparru elkarte, Gerriko txokoa, Ansoategi txokoa, Lazkaomendiko baserriarren elkarte, Haika, IA, Amnistiaren Aldeko Batzordea, EH, Lazkaoko abesbatza, Lazkaoko Parrokia, Beneditarak, Senideak eta gainontzeko parte hartzaileak".

Elordi Garcia

AMEB



Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Sagardotegiko menua
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Aitor Arrondo eta Iker Sukia txapeldun

Ez da ez hau herritarrek Gipuzkoa zein Euskal herriko txapelketetan gailentzen diren lehen aldia. Oraingoan txirrindularitza eta pisu jaurtiketatik datozkigu berri onak. Aitor Arrondo Gipuzkoako txapeldun suertatu zen

Mendaron joan den uztailaren 8an. Beste bost txirrindularirekin batera jokatu zuen sprint-ean hoberena zela erakutsiz eskuratu zuen Gipuzkoako txapela Aitorrek. Baina hori gutxi balitz, joan den asteburuan ere bikain aritu



zen ataundarra. Larunbatean Bergaran irabazi ostean, igandean, Aztiriako Igoeran Mendiko Saria irabazi eta 2. egitea lortu baitzuen.

Bestalde, Iker Sukiak beste behin ere eman digu po-

zik. Joan den asteburuan, Zorrozan (Bilbon), Euskadiko Txapelketa irabazi baitzuen, 18.82 metrotako jaurtiketa egin ostean. Urte askotarako bioi ere eta aurrera mutilak.

Agurtzane Bikuña

LABURREAN

- 'Bai Euskal Herriari' kanpaina abian. Euskal Herriko beste herrietan bezalaxe, Ataungo "Bai Euskal Herriari" Ekimenak ere sinadurak biltzeko kanpaina jarri berri du martxan. Etkez etxe banatu zaigun oharrean aditzera ematen denez, kanpaina honen helburua Udalbiltzari, Euskal Nortasun Nazionala onar dezan eskatzea da. Eskaera hori eginez sinatutako txartelen bilketa ostegun honetatik larunbatera bitartean egingo da etkez-etxe.
- Joan den astean hil zen Ataunen, hainbat urte Hego Ameriketara egin zituen Ermentariko Martin Goikoe-txea fraile sakramentinoa. Doluminak sendiari.
- Bukatzeko irailerarte agurtzea baino ez. Ondo bagara hemen izango gara berriro ere.

6 hilabeteko zigorra Alkateari

"Laguntza ukatzea" delituagatik 6 hilabetez ezin izango du jardun, zuzenki bederen, ardura publikoan Aitor Auzmendi alkateak. Horrez gain, 3 hilabetez egunero 500 pezetako ixuna ordaindu beharrean izango da. Guzti hau erakunde militarrekin ez kolaboratzeko Ataungo Udalak aho batez hartutako erabakiaren ondorioa da. Soldaduska egiteko adinean dauden ataundar gazteen zerrenda Espainiako ejerzitoari ez eskuratzeko bi epaiketa izan ditu Aitorrek. Lehenengo epaiketan epaileak jarritako zigorra joan den uztailaren 1ean hasi zen betetzen. Zigorra bi zatitan betetzeko eskaera egingo du Aitorrek baina, epaileak onartuko ez balu, uztailetik datorren abendura bitartean bete beharko du. Bestalde, joan den maiatzaren izandako bigarren epaiketaren sententziaren zain da orain alkatea. Ikusi egin beharko fiskalak eskatzen duen zigorra, urtebetez kargu publikotik kanpo eta 4 hilabetez egunero 500 pezetako ixuna, betearaziko dion epaileak.



ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



Andramari jaiak prest



Hainbat herritan bezala gurean ere abuztuko Andramari eta Roke Deunaren egunak ospatzen ditugu.

Abuztuak 14, astelehena: Andramari bezpera:

10:00etan: Auto zaharren erakusketa herriko plazan, arratsaldeko 6ak arte.
12:00etan: Herriko gazteen arteko futbito partida.
16:00etan: Haur jolasak.
20:00etan: Kanpai bueltakoa eta suziriak festei hasera emateko.
20:00etan: Ohiko gibel jatea Liztormendi elkartearen. Edonork parte har dezake aurrez izena emanda.
23:00etan: Haur eta helduen danborrada.
Ondoren eta goizalderarte: Trikitzio taldea.

Abuztuak 15, asteartea: Andramari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz erezia etxez etxe.
11:00etan: Meza nagusia.
12:00etan: Txakolin dastatzea herriko plazan.
12:00etan: Herriko gazteen kontzertua plazan.
17:00etan: Andramari bola txapelketa.
18:00etan: Herri kirolak Zur-gai taldearen eskutik: gurdia, aizkora, zerratokia, aizokoraz alturan egur moztea, harri jasotzea eta ingudea.
23:00etan: Musutruk taldea.
24:00etan: Asto lasterketa herriko plazan.

Abuztuak 17, asteazkena: San Roke eguna:

9:00etan: Txistularien goiz

Eskurtsioa

Abuztuaren 25ean, ostiralean, kultur elkarteak eta katekesiko taldearen artean antolatutako txangoa izango da. Txango honetara joan nahi duenak Mandioa dendan izena eman beharko du, abuztuaren 22a baino lehen eta bertan emango zaie irteerako ordutegia eta nondik norakoen zehaztasunak.

Peregrinazioa

Urtero egin ohi den bezala, Zerain, Segura eta Mutiloako erromesak aurten ere irailaren 2an joan dira Arantzazura peregrinazioan. Zeraindarrak goizeko 8etan irtengo dira herriko plazatik, batzuk bertatik oinez joango dira eta beste batzuk Aldaolara kotxez joango dira. Eguerdiko 1ean elkartuko dira Arbelarren bertan denak elkarrekin bazkaltzeko. Arratsaldeko 4etan Segura eta Mutiloako erromesekin bat egin Fondan eta denak batera Arantzazura jaitsiko dira. Arantzazuko sarrera egin ondoren, Udalak antolatutako autobusean herrira itzuliko dira. Bertan lo egiten geratzen direnek igandean itzultzeko autobusa izango dute. Bazkari lekua hartu eta Aldaolara joateko kotxeen antolakuntza egin ahal izateko, joan nahi duenak abuztuaren 31 baino lehen izena eman Xanti Muñoiari.

erezia etxez etxe.

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Amezketako Arkupe dantza taldea.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria plazan, Lizaso eta Lazkano bertsolariekin eta Gillermo Segurola txiste kontalariarekin.

Afal ondoren eta goizalderarte: Kristina, Amaia eta bere taldea.

1:00ean: Mozorro gaua, moztortuen desfilea eta sari banaketa. Sariak: 10.000 peze-ta, 5.000 eta 3.000 peze-ta.

Bola txapelketa

Andramari saria abuztuaren 15 eta 16an jokatu da. Izen ematea goizeko 9,30etatik 11,30etara eta arratsaldeko 5etatik 6etara izango da. Sa-

riak egun bakoitzerako: 1.ak 12.000 pezeta eta trofeoa; 2.ak 10.000 pezeta eta trofeoa; 3.ak 8.000 pezeta eta 4.ak 6.000 pezeta izango ditu.

Laguntzaileak: Mandioa denda, Mandioa taberna, Ostatu jatetxea, Otatza sagardotegia, Mutiloako Mujika jate-txea eta Zegamako Caldas hargindegia.

Urtekaria

Azken urte hauetan ohiko egin zaigu festekin batera urtekaria ere gure eskuetara iristea. Aurtengoan ere dagoeneko inprimategian da eta abuztuaren 14an salgai izango da herriko denda eta tabernetan.

Mari Flor Mendizabal

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*



Herriaren alde batetik beste puntaraino egin du hegan festak. Aztiriarrak lasaitu orduko alegiarrek ekin diote zala-partari. Asteburu honetan bildu dituzte ekintza guztiak, bihar larunbata eta etzi igandean. Hona egitaraua:

Uztailak 22, larunbata: Madalena eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren Goruntz dantza taldearen saioa eta ostean pixkolabix txiki bat Zelai-Ondo elkartean.

17:30etan: Pilota partidak:

1. partida: Ormaiztegiko pilota eskolako haurrak. 2. partida: Castellanos-Olaran Elizegi-Mitxelena-ren aurka.

21:00etan: Herri afaria.

23:00etan: Trikitizio taldearekin dantzaldia.

Uztailak 23, igandea:

12:45etan: Meza Nagusia.

Ondoren Bertsolari gazteen saioa.

17:00etan: Umeentzako ekintzak: Pailazoak, gazteluak, rokodromoa, ohe elastikoak, e.a.

Ondoren: Amaia eta Kristina taldearekin dantzaldia.

Aimar Maiz

LABURREAN

"Txili" joan zaigu

San Fermin bezperan zendu zitzaigun herrian hain ezaguna bihurtu den Txili. Azkoitiarra izatez, azken urteotan Zuzulan bizi zen, eta lagun arte zabala egin ere bai, bere abesti eta umore bereziarekin. 55 urterekin itzali da, inguruan hutsune latza utzita.

Andoaingo abesbatza

Uztailaren 9ko mezetan ezohiko ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen, Andoaingo abesbatzaren emanaldiarekin. Gainera herri-gunean txistulari andoaindarrak ere ibili ziren etxez etxe, igande goiza alaitzen. Elizaren berrikuntza-inaugurazioaren lehen urteurrena ospatzeko tamainako oparia.

Iparraldeko dantzariekin hartuemanetan

Iaz kataluniarrekin izandako esperientzia ederrak bultzatuta, aurtengo Goruntz dantza taldea Lapurdiko Donibane Lohitzuneko dantzariekin jarri da harremanetan. Honela, festetan pare bat egun hemen igarotzera gonbidatuko dituzte, tartean elkarrekin saioa eskainiz, Hegoaldeko nahiz Iparraldeko dantzekin. Aurretik, hobeto ezagutze aldera hona etorriko dira, lagun artean bazkaldu eta inguruak ikustera.

Andramari jaiak 2000

Abuztuak 12, larunbata: koadrilen eguna:

16:30etan: Suziri eta kanpaiek festen hasiera iragarriko dute.

17:00etan: Kuadrilen arteko futbol partidak.

21:30etan: Kuadrilen afaria Ostaturun. (Afarirako txartelak jabetxean bertan erosi behar dira abuztuaren 10erako)

Ondoren bertsolari gazteekin eta trikitilariarekin kalejira.

Abuztuak 13, igandea

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30etan: Bola eta toka eskualde eta herri mailan (izenematea 12:30etan itxiko da).

12:00etan: "Ardi Latxa" esnearekin eginiko gazta erakusketa eta dastaketa.

18:00etan: Herri kirolak.

18:30etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute (izenematea 7:30etan itxiko da).

Abuztuak 14, astelehena:

Goiz eta arratsalde txistularien biribilketa baserriz baserriz.

22:30etan: Bertsolari jaialdia, Parrokiako antzokian.

Gauean: Ene Bada taldearekin erromeria.

Abuztuak 15, asteartea: Andra Mari eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:15etan: IX. Ormaiztegitik Gabiriara igoera txirrinduz herritarrentzat. (Sariak: 1. eta 2. sailkatuak, 14 urtez behekoa, tarteko helmuga eta 1. emakumea)

18etan: Dantza eta kirol jaialdia frontoian **Euskal dantzen emanaldia:** Donibane Lohitzuneko (Lapuri) Begiraleak dantza taldea eta herriko Goruntz. **Pilota partidak:** Herriko alebinak. Afizionatuak: Saralegi-Olaran / Castellanos-Etxeberria.

Arratsalde eta gauean: Etzakit musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

05:00etan: Baratzuri zopa denontzat, Erbie elkartean.

Abuztuak 16, asteazkena: San Roke eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren herriko Goruntz dantza taldeko gaztetxoaren saioa.

16:00etatik aurrera: Umeentzat parke erraldoia.

17:30etan: Ume jolasak eta

mozorro dantza.

18:30etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute (izenematea 7:30etan itxiko da).

19:30etan: Sagardo eta txistor dastaketa.

Gauean: Trikitizio musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte eta mozorro gaua.

05:00etan: Txokolate jana denontzat Osinalde elkartean.

Abuztuak 17, osteguna: San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza herrian hildakoen alde.

12:00etan: XIV. Tiragoma txapelketa.

Ordu berean: Bola eta toka herritarrentzat (izenematea 13etan itxiko da. Gazteentzat ere saria izango da).

18:00etan: Antzinako ohiturari jarraituz, ardo beltz bana-keta herriko zagiardotik.

Arratsalde eta gauean: Joselu Anaiak musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte, eta Zumarragako trikitilariarekin erromeria.

Abuztuak 18, ostirala:

17:00etan: Herria txukuntzea, eta ondoren lanean aritu diren guztientzat afari-merienda.



Ugaroko ikasleak sarituak

Donostiako RENFE-Hurbi-leko tren zerbitzuak eta Bixintx Megadendak azken ur-

teetan bezala, marrazki lehiaketa bat antolatu du aurreten ere. Bertan, Legorretako

Mirari Arregi saritua estatu mailan

Ugaro Herri Eskolako irakaslea den Mirari Arregik estatu mailan Fontvellak antolaturiko lehiaketa batean hartu du parte. Berak ingurugiro heziketa lantzeko proiektu didaktiko pedagogiko bat aurkeztu du. Landu beharreko gaia ura izanik Mirarik errekan oinarritu du bere proiektua. Txalagarria da benetan bere lana, izan ere 3. saria irabazi du estatu mailan. Sari gisa bere ikasleentzat bidaia bat lortu du, konkretuki inguruko aquarium batetara.

Xabi Perez azpitxapeldun

Infantil mailako Euskadiko igeriketa txapelketa aurreten San-turtzin ospatu da. Azpimarratzekoa da benetan Xabi Perez legorretarrak eginiko lana. 400 estiloetan zilarrezko domina irabazi du bere marka 20 segundutan hobetuz. Hau hasiera besterik ez da, izan ere, legorretar gazteak aproba ugari ditu aurretik bere trebezia erakusteko.

Ugaro Herri Eskolako ikasle-ek hainbat sari lortu dituzte euren betebeharraren bate-tik mundua nola ikusten du-ten marraztea izanik. Lehe-nengo mailako ikasleak diren Maddi Jauregi, Igor, Sarai, Erika, Mara, Ane, Maddi Ar-teaga, Lander, Elisabeth eta Frutis-ek eginiko talde lana-gatik sari bat jaso dute euren

lan eta originaltasuna balora-tu delarik. Banaka aurkeztu-riko lanengatik ere bi sari lortu dituzte: Erika Irazolak bigarren saria eta Sarai Ma-teok berriz, sari berezi bat.

*Inko Mujika
Laida Oiarbide*

Andra Mari jaiak

Kultura eta Festa Batzordeak dagoeneko prest dute aurreten-go Andra Mari jaietako egi-tarua. Festak ondo pasa eta bertan parte hartzera gonbi-datzen zaituzte herritarrok. Beraz, ondo pasa!

Abuztuak 13, igandea:

9:30etan: Trikitilarien goiz eresia.

11:00etan: Txupinazoa.

11:30etan: Haurrentzako par-kea.

18:00etan: Futbol partidak: haurren artekoa eta gazteen artekoa.

21:00etan: Afaria Gaztetxe-an, eta ondoren jai giroa.

Abuztuak 14, astelehena:

9:30etan: Trikitilarien goiz eresia.

11:30etan: Herriko haurren dantza saioa.

12:00etan: Udalbatzaren es-kutik soka-dantza.

Jarraian: Hamaiketako.

16:00etan: Zinta karrera.

18:00etan: Herriko haurren artean herri kirolak: zaku ka-rrera, oskol apustua, sokatira eta errelebo lasterketa.

19:00etan: Salbea.

Jarraian: kalejira buruhan-diekin.

21:00etan: Herri afaria.

23:00etan: Xuhat taldeare-kin dantzaldia goizaldera ar-te.

Abuztuak 15, asteartea:

9:00etan: Txistularen goiz eresia.

10:00etan: Afizionatu mai-lako txirrindu lasterketa.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Afizionatu mai-lako txirrindu probaren amaiera eta sari banaketa.

18:00etan: Jubenil eta afi-zionatu mailako pelota parti-dak Errota pilotalekuan.

22:00etan: Mus txapelketa.

23:00etan: Triki-Trake tal-dearekin goizaldera arte mo-zorro lehiaketa.

Abuztuak 16, asteazkena:

9:00etan: Txistularen goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:00etan: Beheko plazatik Altzagarateko igoeraren ha-siera.

12:00etan: Altzagarateko igoeraren amaiera eta sari banaketa.

13:00etan: Toka txapelketa, herritarrentzat.

16:30etan: Haurrentzako txi-rrindu proba: Beitiko igoera.

20:00etan: Patata-tortila lehiaketa.

23:00etan: Bigira taldeare-kin dantzaldia goizaldera ar-te.

Festen amaiera.

Ordiziarrek irabazi dute Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa erramintaz Oiangu pilota elkarteak fruituak

Uztailaren 2an Tolosako Beotibar pilotalekuan X. Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako finala jokatu zen erramintazko atalean, larruzko pilotazko paleta eta pala motzez jokatzen dena, alegia. Bertan Ordiziako ordezkariak txapela lortu zuten, Donostiakoei finalean irabazi ondoren. Hauxe da Ordiziak lehiaketa garrantzitsu honetan garaipena eskuratzen duten lehen aldia.

Gipuzkoako 13 herri aritu dira pilotan azken bi hilabeteetan, Goierriko Olaberria eta Idiazabal ere tartean. Ordiziarren aurkariak Hondarribia, Oiartzun (hasierako ligak) eta Andoain (finalerdian) izan dira, Donostiaren aurka finala jokatu aurretik.

Herrien arteko neurketa hauetan bi partidur jokatu dira (paleta larruz eta pala



Andoni Berasategi, Rikardo Goiburu, Jose Luis Aizpurua, Tomas Lakalle eta Jesus Mari Albisu txapelketa irabazi ondoren.

motzez) eta denetara tanturik gehien egiten duena suertatzen da irabazle.

Berasategi eta Goiburuk irabazteko zailena zirudien norgehiagoka jokatu zuten, ahalik eta tantu gehiena egiteko asmoz. Baina tantuak egin ezezik justuko garaipena ere lortu zuten 35-34. Ondoren Lakalle eta Aizpurua ere 40-34 irabazi zuten.

Bazuten irabazteko itxaropena batez ere Tomas Lakalle jokatu duelako. Hau

ordiziarra izan arren 18 urterekin Gazteizera joan zen Iñef ikastera eta pilotari bezala han egin da. Orain arte ez diote herri arteko txapelketan jokatu utzi, baina aurten bai. "Bera jokalaria handia denez itxaropen gehiago genituen finalera iristeko behintzat", diote ordiziarrek.

Hau izan da orain arte lortu duten garaipenik garrantzitsuenak, orain arteko titulu gehienak gazteen mailatan lortuak dira. Taldea oso gaz-

tea da eta senior mailan eman beharreko fruituak hemendik aurrera eman behar dituzte.

Aurten Gipuzkoako klub arteko txapelketan Oiangukoak izan da bikote kopuru handiena senior mailan. Ordiziaz gain Goierriko hainbat pilotarik jokatzen du Oiangun, Ormaiztegui, Beasain, Lazkao eta Olaberriakoak. Idiazabalen ere Atxurbide kluba egon arren bertako pilotariren batek Ordizian entrenatzen du. Goierriin erramintan bi klub daude Ordiziko Oiangu eta Idiazabalgo Atxurbide eta bi taldeen artean oso harreman ona dago.

Afizio gutxi

"Palako afizio handirik ez dago, zenbait herrietan esku pilotak afizio handia dago. Baina Ordizian ez dago zaletasun handirik eta erramintarako gutxiago. Lehen beharbada afizio gehiago zegoen palarekiko. Urte baten edo bestean Musi pilotari mexikarra etorri zen eta pilotalekua betetzen zen", dio Andoni Berasategik.

Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogiltartekoak

Jai zoriotsuak denoi!

Fandango

- ✕ Musika tresnak
- ✕ Megafoni alkileria
- ✕ Baxu eta gitarra klaseak

☎ 943 16 10 73
Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**

Kiska
PUB

Santa Maria
ORDIZIA

AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 **ORDIZIA**
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 **BEASAIN**

Santiago eguneko jaialdia

Urtero egiten dute jaialdia Santiago egunean. Festa aurteko egunetan herriko gomazko txapelketa herrikoia jokatzen da, bukaera festetan ematen zaio. Goierriko pelotarien arteko txapelketa bat ere jokatzen da eta hemengo finala ere 25ean izaten da. Jaialdia osatzeko partidu berezi bat izaten da, Euskadiko finaleko errebantxa edo antzeko zerbaitekin.

"Garbi dago esku pilotak askoz ere indar gehiago duela, diru gehiago mugitzen du. Pala motza eta larruzko paleta beti gutxiengoaren kirolak izan dira. Gu behintzat ahaleginak egiten ari gara kirol hau aurrera ateratzeko. Telebistak ere indar handia du eta lehen pilotaleku zurian jokatzen zenean ez zen pilota ondo ikusten baina orain ez dago aitzakia hori. Jendeak ez du ezagutzen eta ez dauka interes handirik. Baina pala bai jokatzeke eta bai ikusteko oso kirol polita da", diote Oiangukoek.

Pilotari gazteak

Jesus Mari Albisuk bultzatu duen elkarteak hasieratik garrantzi handia eman die hau-



Lau txapeldunak Pello Gaztañaga, Jesus Mari Albisu, Iñaki Aierbe eta Gorka Berasategirekin.

reiei, beti saiatu dira aurrei palaz jokatzen erakusten. "Pilota eskola hobeto edo okerrago beti izan dugu. Hori borondatezko lana denez, askotan arazoak izaten dira jendeak denbora gehiegi izaten ez duelako, baina bizpahiru pertsona laguntzeko prest daudenean errazago eramaten da. Garrantzitsuek gazteak pilotalekuan ibiltzea da. Ibiltzen badira pilotariak aterako dira", dio Andonik.

Azpimarratzekoa da aurtent jokatzen aritu diren pilotari guztiak 25 urtetik beherakoak izan direla. Paleta eta pala motzean eskuz baino denbora gehiago behar da heldutasunera iristeko. Tek-

nika handia eduki eta kantxan kokatzen jakin behar da... "Ikasten denbora asko behar da eta pilotaria heldutasunera 30 urte ingururekin iristen da, 32-33 urterekin dago agian momentu hobereanean. Oiangun jende gaztea dago eta piskanaka orain hasi behar gara egindako lan guztiaren fruituak ikusten", diote.

Nahi duenarentzat ateak zabalik

Jokatzeke interesa duen guztientzat ateak irekita ditu Oianguko elkarteak. Ordiziako pilotalekuan ia egunero entrenatzen dute eta interesa duenak bertara azaltzea bes-

terik ez du. Tarteka Idiazabala edo besta pilotaleku batzuetara joaten dira entrentzera, beste aurkari batzuen aurka edo frontoi ezberdinetan entrentzea garrantzitsua baita joko maila hobetzeko.

Profesionaltasuna urrun

Profesionalek Bilboko Deportibon bakarrik jokatzen. Horrek afizionatuen munduarekin ez dauka zerikusirik. "Bilbon ikusleak nahiko zaharrak dira eta dirua jokatzeke joaten dira, baina hori pilotarientzat ez da batere erakargarria. Hor sartzeko figura bat izan behar zara edo bestela Deportibo bertara joan orduak hartu eta bertan entrentzen aritu behar da enpresakoek ikusi ahal izateko, ez da betere erakargarria", dio Berasategik.

"Afizionatuetan oso maila handia dago eta helburua munduko txapelketetara joatea izaten da. Orain Euskadiko federazioa Espainiakoitik atera da eta aurreselektzio bat ere badago. Hori oso pauso garrantzitsua izan da baina oraindik inork ez daki oso ondo zer ondorio ekarriko duen. Euskal selektzioa egotea guztiz logikoa iruditzen zaizkigu, gehienak horrekin ados gaude", amaitu du.

ORDIZIA BIDEO KLUBA

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

T A A

M A

Y O

FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 943 88 89 80

ORDIZIA

OSKARBI

OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.

Faxa: 943 88 82 67 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!

Cuesta

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak

Oihalak

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Etxebizitzak

konpartitzeko

➔ Bi pertsona behar dira Leioan pisua osatzeko. Rebeka (606518229), Oihana (943800426), Ainhoa (636527957).

➔ Iruñean pisua osatzeko neska bat behar da. Unibertsitateetatik gertu. 943886519.

➔ Datorren kurtsoan Elgoibarren pisu bila nabilen ikaslea naiz. 943889067 (Aitor).

errentan

➔ Landatan dagoen kanpin karabana alokatzen da, uztaila eta abuztuan. 5 lagunentzako egokia. 946231796.

➔ Nafarroan, Isabatik gertu, apartamentua alokatzen da. Mikel. 943885463 - 656767402.

➔ Benidormen apartamentua alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzat. Itsasoari begira. Erdigunean. Aire egokitua du. 943887361.

➔ Apartamentua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

➔ Oropesan (Castellon) apartamentua alokatzen da. Lehenengo ilaran. 943884374 - 943882156.

➔ Benidormen apartamentua alokatzen da, 2 edo 4 lagunentzat. Erabat ekipatua. Itsaso bistak baditu. Afalorduetan deitu. 943882467.

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, as-teburu eta oporretarako. 948 539381.

➔ Zegaman etxebizitzak salgai, bodegarekin. 943888113

Animaliak

salgai

➔ Artzai txakurra salgai. 8 hilabetekoa. 943885102.

➔ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➔ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedigree oso onekoa. 667 955443. Aitor

➔ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

Bestelakoak

salgai

➔ Kanpin karroa salgai, egoera onean, gutxi erabilia. 943886134.

➔ Eskuko telefonoa eta Olivetti idaz makina salgai. 943882278.

➔ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➔ Conver 13, karro denda salgai. Bi abantzekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



FAGOR

XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurritara

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN



➡ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezeta. 943 886521.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal al-dizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Ibilgailuak

salgai

➡ Fiat Tipo salgai, SS-AJ. Beti garajejan edukitakoa. Segurua 2001. urtera arte. 350.000 pezeta. Aitor. Lan orduetan deitu. 943161854.

➡ Ford Orion salgai, SS-AB. Egoera onean. Kubieta eta enbrage berriak. 943780227. Igor.

➡ Kawasaki ZX GR motoa salgai. 3.000 kim-rekin. 7 hilabete-ko garantia. Alarmarekin. Egoera onean. 943806552.

➡ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesel. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➡ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

Lana

eskaerak

➡ Komertzial bat behar da, anbiziotsua. Inbertsio txikia. Errentagarritasun handiena. 20:00etatik aurrera deitu: 630892975.

➡ Abuztuan Idiazabalgo elkarte edo soziedade bat garbitzeko pertsona bat behar da. 943187097.

➡ Sukaldari bat behar da asteburuetarako. 943886243.

➡ Emakumezko bat behar da, goizetan, etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Gauez deitu. 943161874.

➡ Jatetxeko sukalderako emakume bat behar da. Esperientziaduna. Euskalduna. Kortexa beharrezkoa. 943880044.

➡ Mutil bat behar da obratan lan egiteko. 943161032.

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➡ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. Esperientziaduna. 943880044.

eskaintzak

➡ Neska euskaldun bat eskaintzen da umeak edo adineko jendea zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluduna. 943885783.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

JUAN KAR

* Zoruen lixatu eta barnizadurak
hautsik gabe

* Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50

San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI



● Iturgintza

● Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

ZINEA

ORDIZIA:

'28 DIAS'.

Larunbata 22: 22:15

Igandea 23: 19:30 - 22:15

'L princesa Monnoko'.

Igandea 23: 17:00.

musika

GABIRIA:

Uztailak 22, Trikizio, Alegia auzoan, 23:00etan.

Uztailak 23, Amaia eta Kristina, Alegia auzoan, arratsaldean.

Abuztuak 14, Ene Bada, gauean.

Abuztuak 15, Etzakit, arratsalde eta gauean.

Abuztuak 16, Trikizio, gauean.

Abuztuak 17, Joselu Anaiak, gauean.

LAZKAO:

Abuztuak 24, Amaia eta Ruth trikitilariak, Maizpiden, 21:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 25, Alaitz eta Maider, 24:00etan, pilotalekuan.

ZERAIN:

Abuztuak 14, Trikizio, gauean.

Abuztuak 15, Musutruk, 23:00etan.

Abuztuak 16, Kristina eta Amaia, gauean.

bertsoak

GABIRIA:

Abuztuak 14, Bertso jaialdia, Parrokiako antzokian.

LAZKAO:

Abuztuak 22, Lazkao Txiki bat-bateko sorgina, Xabier Amurizaren eskutik, 21:00etan, Maizpiden.

dantza

ORDIZIA:

Uztailak 25, Jugoslavia-ko IMT taldea, 22:30ean, Domingo Unanue plazan.

GABIRIA:

Abuztuak 15, Donibane Lohizuneko Begiraleak eta Gabiriko Goruntz dantza taldeak, 18:00etan, pilotalekuan.

hitzaldia

LAZKAO:

Abuztuak 21, Bertsolari-tza jorratuz hitzaldi-solasaldia, Iñaki Murua bertsolariaren eskutik, 21:00etan, Maizpide Euskaltegia.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Uztailak 22-23: Jauregi (Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 16 09 49.


Uztailak 29-30: Cuesta (Nafarroa etorb. 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Abuztuak 5-6: Lournaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 88 18 28.

Abuztuak 12-13: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Abuztuak 19-20: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 88 06 28.

Abuztuak 26-27: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.



ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitartekoak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844



SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎ (mugik.) 608 - 61 95 01



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INFRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA 2000ko uda

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

Unibertsitate maila:
Iraila azterketak

- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Enpresaritza
- ✓ Fisika - kimika
- ✓ Farmazia

Lehen eta bigarren hezkuntza

- ✓ Tailerrak
- ✓ Sormena, arrazoiketa ulermena, kalkulua
- ✓ 2000-01 ikasturteko prestaketa

Batzilergoa - Moduloak

- ✓ Gai guztien lanketa
- ✓ Humanistikoa, zientifikoa, teknologikoa.
- ✓ Espresioa, testu komentaketak
- ✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

Talde txikiak

Banakako atentzioa

2000-2001 ikasturterako matrikula zabalik

Ordiziako 'Botika zarra'

Ordiziako Jauregi farmazia, 'Botika zarra', historia handiko farmazia da. Sorrerako daturik ez dago, baina 1854ko maiatzaren 24ko data duen erresoluzio bat bada Ordiziako udaletxean. Garai batean oso herri gutxitan izaten ziren farmaziak. Ordiziako 'Botika zarra' adibidez, 1874-1898 bitartean, inguruko bakarra zen. Ataun eta Beasaingo biztanleak izan ezik, gainerako guztiak hornitzen zituen.

Jose Antonio Jauregi Ormazabal ordiziarra, gaur egun Jauregi farmazia daukaten herenaitonak, sortu zuen Jauregitarren farmazia. Abaria etxean alokairuan bi-zi omen zen. Honen semeak, Anselmo Jauregi Lasak, orube bat erosi eta hantxe kokatu zuen farmazia. Gaitasun handia zuen Anselmok ogibide honetan. Bere espezialitatea, oinetakoentzako betu-



Domingo Jauregi

na zen. Botikaren sotanoan egiten zuen. Gipuzkoan eta Gipuzkoatik kanpo ere, oso ospetsua zen Anselmoren betuna. Guardia Zibilek oinetako garbiak erabiltzera behartuak zirenez, bezero onak izan omen zituen. Betuna egiteko sekretua altxor bat bezala gordetzen zuen. Aragoiko erakusketa batean, 1868an, saritu egin zuten betuna.

Tertuliak

1908an hil zen Anselmo, Ordiziako Alkate zela. Bi semeek jarraitu zuten farmaziarekin, Jose eta Domingo Jauregi Gorostidik, hauek

ere botikariak. Oso ezagunak ziren botika barruan egiten zituzten solasaldi edo tertuliak. Bitxikeria ugari izaten zen, 1916koa, Juan Ramon Munduate (erlojugilea), Jose Migel Barandiaran (antropologoa) eta Domingo Jauregi farmazeutikoaren artekoa ekarriko dugu gogora. Mendian galenazko irrati bat egitea erabaki zuten. Botikaren kanpoaldean antena handi bat jarri eta Lehenengo Mundu Gerrako albisteak jasotzen zituzten, Paris eta Londrestik. Entzundako albisteei buruzko solasaldiak egiten zituzten egunero eta herritarrek ere informatzen zituz-

ten, botikaren kanpoaldean kartelak jarri. Bi hilabetera poliziak irrati honen berri jakin zuen eta espiak zirelakoan atxilotzera joan ziren. Irratia ikusitakoan, ezin sinisturik gelditu ziren horrelako aparatoarekin atzerriko ahotsak entzun zitezkeenik. Aparatoa kendu eta gerrako albisteak entzun eta zabal-tzea debekatu zieten.

Beste bitxikeria bat: baseritar bat tertulian sartu eta maitemintzeko hautsak emateko esan zion, bazekiela egiten zituela eta. Jose Domingok, txantxetan eman zion errezeta: aspirinaren eta azukrearen arteko nahasketa. Hilabete barru itzuli omen zen baserritarra, oso ondo joan zitzaioela eta dosi bakar batekin nahikoa izan zuela esanez.

Gaur egun Domingoren bilobek daukate 'Botika zarra' ren ardura. Bosgarren belaunaldia da.

Historia hau guztia Gipuzkoako Farmazeutikoen Kolegioaren 100. urteurrena ospatzeko ateratako liburuan azaltzen da.

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

Jai goizentzuek denoi!

MARTINEZ
Jatetxea

© 943 88 06 41

Santa Maria, 10

ORDIZIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA



BIÑASPRE

Oporretara joan aurretik eskuratu
Biñaspren zure brontzeatu eta
edertasun programa

Zure eguzkitarako produktuak
erosteagatik, opariak ditugu!

K. Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA

USAIDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA



Ordiziako zezenzaleak 1926an

1926ko uztailaren 26ko argazkia da, Ordiziako Arana futbol zelaian ateratakoa. Santa Ana eguneko nobilladetan parte hartu zuen Ordiziako zaletu koadrila da.

Ezkerretik eskubira: Jose Luis Garcia, Jose Azkarate, Victor Maiza, Teofilo Martinez, Gregorio Alberto eta Luziano Leza.

ALAIA
Taberna
Kafetegia
*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*
Urdaneta, 2 ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea

Elkano Kalea ORDIZIA

Olagi
Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

GUREA
JANARIAK
GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Añber etxea
MUTILOA

ARANTXA
taberna
**PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK**
☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

**Mozorro den-
da ORDIZIAN**

Majori Plaza, 12 ☎ 943 888 232



JOSUNE
Edergintza zentruak

CARITA
PARIS

institutuaren edertasun
tratamendu eksklusiboak
ezagutzera gonbidatzen zaitu



Jaiz zoriontsuak denoi!

CARITA tratamendu zehatzak eta bere **Pro-lifting**-ak profesionaltasun eta edertasun aditu handi baten konfidantza osoa eskaintzen dizu. Inoiz lifting natural batean lortu ez diren emaitzak.

Zatoz gure **CARITA edertasun kabina ezagutzera**. Bertan zure azalaren diagnostikoa egingo dugu, zure beharretara ondoen egokituko den tratamendua zehazteko.

EMAITZAK LEHENENGO SAIOTIK

J.M. Barandiaran plaza

ORDIZIA

☎ 943 88 28 88

Zain gaituzu

Foto IBILTARIA



Errebelatuetan kalitate onena



- ✖ Laborategi zerbitzu orokorrak
- ✖ Argazki-materialen salmenta
Zuri-beltzeko laborategi materiala
- ✖ Argazki zaharren kalitatezko
erreproduzioak

GEMA M. ARRUGAETA
Argazkilari profesionala

DAVID MONTERO ARRUGAETA
Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

Elkano, 8 (Asto Kale)

☎/faxa: **943 16 22 64**

ORDIZIA



belén

DEKORAZIOA OPARIAK

*Zure etxea
egoki janzteko denda*

☎ 943 16 22 87

Urdaneta Kalea, 24 - 25

ORDIZIA

